

ABELTZANTZA GAUR EGUN ETA MENDE HONEN HASIERAN EZKIOKO HERRIAN

IOSEBA ZENDOIA ARANZADI



*Nere gurasoei,
euskaraz bizi izaten
erakusteagatik*

Sarrera

«Abeltzantza gaur egun eta mende honen hasieran, Ezkioko herrian» dio, idazlan honen izenburuak. Bertan, abeltzantzaren egoera ze baldin-

tzetan burutu den mende honen bitartean, jaso izan nahi dut. Baita, gaur egun dituen arazoak gainki adieraztea. Lan honi ekiterakoan, Joxe Miguel Barandiaran-en «Guía para una encuesta etnográfica» deituriko galdeketaren atal bat erabili dut.

Galdeketa osatzeko erabili ditudan berriemai-leak, honako hauek dira:

Josefa Aranzadi Urkiola: Ezkioko «Barrene» baserrian bizi da.

Angel Idiakez Zabalo: 74 urte. Ezkioko «Argindegi» etxean bizi da. Bere lanbidea haroztegia izan da.

Arantza Aranzadi: 50 urte. Zumarragako herrian bizi da. Halere Ezkioko Agerregoiko baserrian jaioa dugu.

Joxe Antonio Aranzadi: Ezkioko Maioranea etxean bizi da. Bere lanbidea abeltzantza da.

Joxe M.^a Zendoia Kerejeta: 63 urte. Basajaundegi baserrian jaioa (Azpeitin). Erlezantzari dagokion atala, bere aholkueri esker osatu dugu.


Berriemaile hauetatik aparte, ezin ditut ahan-tzi, idazlan honetan esku hartu duten lagun batzu:

Gontzal Avila: euskerako zuzenketan parte har-tzeagatik.

J. M. Diego Kerejeta: planoen eta marrazkien bu-rutzapenengatik.

Iñaki Otabarte Aranguren: idazlan honetarako era-bili dudan argazkilaria.

Sarrera bukatzeko, nere adiskide Antton Agui-re-ren aipamena egin gabe ezin dut amaitu. Bere aholkuen eta bultzadari esker, idazlan honek amaiera izan duelako.





Herriaren egoera

Lana egiterakoan kontutan eduki nuen, Ezkioko herria 1964. urtetik Itsasoko munizipioarekin dagoela elkarturik, sortzen diren gastuak eta arazoak bi udaletxeen artean errezago konpondu ahal izateko. Ala ere, 1985. urtean zehar, abeltzantzaz jaso ditudan datuak Ezkioko herriari soilik dagozkio.

Ezkio, Gipuzkoako probintzian kokaturik agertzen da erdi-hegoaldeko ingurunean eta bazterrak aztertzerakoan Goiherriko bailaran sartu ohi dute. Bere jendetza, urtetan zehar laborantza eta ganadugintzatik bizi izan da eta oraindik ere sektore indartsuena hauxe bera dugu, Santa Lutziko hauzoan industriagintza ere agertu arren (1).

Ezkioko jatorrizko mugak hauexek dira:


iparraldetik: Azpeiti

hegoaldeetik: Gabiri

ekialdeetik: Itsaso

mendebaldeetik: Zumarraga

Deskribapen gehiagorekin jarraitzeko, interesgarria irudituz gero, aurreko mendean Serapio Mugica'k herri honetaz emandako xehetasunak «Provincia de Guipúzcoa» delako idazlan ezagunean (3):



sunak «Provincia de Guipúzcoa» delako idazlan ezagunean (3):

«Es una diminuta villa, que ostenta los títulos de Noble y Leal, situada fuera de la carretera, á la derecha de ésta conforme se va de Ormaiztegui a Zumárraga. Está en paraje montuoso, á los 1° 25' de longitud oriental y 43° 5' 40" de latitud septentrional, entre Azpeitia que la limita por el N., Gaviria por el S.; por el E. Ichaso, y Zumárraga por el O. Izazpi, que tiene 965 metros de altura y Beotegui, de pizarras areniscas y psamitas infracretáceas, son las montañas principales de la jurisdicción. La extensión superficial del término municipal es, próximamente, de 1.800 hectáreas, de las que 324 son de bosques en los que se obtiene buena madera, 162 están dedicadas á castañares y el resto lo forman tierras de labradío y eriales. En las tierras de labradío obtienen á fuerza de trabajo, trigo, maíz, alubia y nabo en cantidad más que suficiente para el propio consumo, y buenas cosechas en cantidad y calidad, de manzana, castaña y otros frutos. A la recría de ganado vacuno se dedican también casi todos los labradores.

No pasa por Ezkioga río principal. Como hemos dicho en la página 69, por el camino de Santa Lucía atraviesa una corriente de agua que nace

(2) «Industriagintza bidean». Siadeco. Gero euskal liburuak. Ediciones Mensajero, Bilbo. 1974. (12. horria).

(3) SERAPIO MUGICA: «Provincia de Guipúzcoa», Geografía General del País Vasco-Navarro. Francisco Carreras y Candi-k argitaratua. Bartzelonan 1902. urtean. (851. horrian).

(1) «TALDE»: Sozio ekonomi ta administrazio lokalaren ikasketak. «Estudio socioeconómico de las normas subsidiarias de planeamiento de Ezki-Itsaso», 1982 Maiatzan. (46. horrian).

en el alto de Eizaga y se une en Ormaiztegui al río Eztanda; en esa corriente desaguan, por su izquierda, el riachuelo Berroeta, que corre por el límite de Ezkioga y Zumárraga, y Orúe, límite de Ezkioga é Ichaso.

Tiene 624 habitantes. El casco de la villa está formado por once casas irregularmente agrupadas en terreno pendiente, alrededor de la iglesia, y fuera del recinto urbano hay otras setenta, de las que una docena forman, al borde de la carretera que va de Ormaiztegui á Zumárraga, un barrio conocido antiguamente con el dictado de Anduaga, por hallarse aquí la casa solar de este nombre, y al que hoy más generalmente se le llama de Santa Lucía por estar dedicada á esta Santa la iglesia del barrio. Por el casco de Ezkioga no pasa carretera, ni hay muy buen camino que haga salvar cómodamente los dos kilómetros que le separan del camino real que atraviesa el barrio de Santa Lucía. La estación más cercana es la del ferrocarril del Norte en Zumárraga, que dista dos kilómetros de Santa Lucía, y de la cual se sirve la villa para el servicio de correspondencia.

Tiene oficinas municipales en amplia casa; elige siete concejales entre 147 electores que tiene la villa. Los centros de enseñanza de que dispone son dos: una escuela mixta en el casco, y otra privada, mixta también, en el barrio de Anduaga.

Pertenece al arciprestazgo de Segura. La iglesia parroquial es de la advocación de San Miguel, de categoría de entrada, con órgano; servida por un párroco y un coadjutor. Este reside en el barrio de Santa Lucía, donde hay una ayuda de parroquia bajo la advocación de aquella Santa. Hay también en términos de la villa una ermita, la de Santa Marina. Se celebran dos romerías al año: una por San Marcial (8 de Mayo) y otra por San Pedro (29 de Junio).

No hay alumbrado eléctrico. No hay médico ni farmacia. Ni tamboril ni frontón. Un juego de bolos.

Como hemos dicho, la agricultura es la labor casi exclusiva de los habitantes de la villa, que muchas veces para llevarla a cabo han de soportar los efectos de la dureza que en invierno tiene el clima: es frío, y nieva con frecuencia; el año 1878 nevó el día 28 de septiembre. En estos casos en que no es posible trabajar en faenas agrícolas, mucha gente se dedica á confeccionar cestas para la fábrica de Zumárraga. Aparte de ésta, no hay más industrias que dos molinos.»

Serapio Mugica-k datu hauek idatzi zituenetik, egoera nahiko aldatu da gure herri honetan; jendetzaren kopurua urtetik urtera jeisten dihoa (beherakada hori hamarnaka urtetan % 27-an kokatzen da, 1982'an TALDE-k aurkeztutako ikerlanak honela dio behintzat). Azkeneko zentsuak, 1981.ean egina, Ezkio-ltsaso udalbarrutian 596 biztanle kopurua jakin arazten zuen.

Urte asko dira herri bertaraino bidea egina dagoela, gaur eguneko garraio-bideak erreztzen direlarik. Herritik hurbilen dagoen geltokia Gabirioa dugu, Santa Lutzi hauzotik bost minututara agertzen da. Udaletxeko bulegoak, orain dela urte batzu egindako etxe berri batetan daude kokatuta, Santa Lutzi hauzoan. Egun ez dago Ezkion inolako ikastetxerik, helburu hori betetzen zuten etxeak hutsik edo bestela lagun elkarteak ditugu. Noski une honetan elektrizitatea baserri guztietara iristen dela. Herrian sendagile bat badago ere, bertan agertu daitezken ezbeharrak zuzentzeko lain, arazo larriak Zumarragako osasun-egoitzara bidaltzen direlarik. Amaitzeko aipatu herriak pilotalekua baduela, orain ogei bat urte egina.

Herri guneak aldaketa handia ez badu izan ere, behealdean —Santa Lutzi hauzoan hain zuzen— industriagintza berriak sortzen joan dira: Aramendia Anaiak, Riza, Gelman, S. A., Elizburu, Plásticos Urola, Ipiñarrieta, Elguea, e. a. Ala ere, lehen aipatu bezala, industriagintza mota hauek ez dute aldatzen herriko ekoizpena, jendea laborantzatik bizi bait da gehienbat.

Beste ikuspuntu batetara itzuliaz, zerrenda dazagun zein baserritaz osatzen den Ezkioko herria eta zein hauzotan kokaturik dauden baserriak. Horretarako Sinforoso de Iburguren-en «Pueblo de Ezquioga» idazlana (4) eta Iñaki Linazasoro-ren «Caseríos de Guipúzcoa» (5) idazlanei jarraitu natzaie.

Nere eginkizunerako, batez ere Sinforoso de Iburguren-en lana jarraitu dut, xehetasun gehiago erabiltzen duelako eta Linazasoro-k jaso ez duen baserri asko, berak xehazki aipatuta dauzka. Gainera, Linazasoro-ren idazlan honetan, Ezkioko herriarekin ezer ikusirik ez duten baserrien izenak agertzen dira. Hori gertatzen da: Arrinkorta, Bildotxola azpikoa, Bildotxola goikoa, Gorostarzu

(4) SINFOROSO DE IBARGUREN: «Pueblo de Ezquioga». Anuario de Eusko-Folklore 1927. VII Tomoa. Eusko-Ikaskuntza: Sociedad de Estudios Vascos argitaratzailea. Donosti. (27-58 horriak).

(5) IÑAKI LINAZASORO: «Caseríos de Guipúzcoa». Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala. 2.ª argitarapena 1974-an. (180-182 horriak).

(Ko-osturrutzu), Largate eta Largate beheko baserriekin. Guztiok Azpeitiko Udalbarrutian sarturik daude.

S. Ibarguren-i jarraitzen badiogu, Ezkioko Udalbarrutian agertzen zaizkigun hauzoak hauexek ditugu: Sakontxiki, Eker, Garaion, Aeta, Bizkardu eta Mendietxe. Autore honek aipatzen zuenari, neronek datu berri batzuk erantsiko dizkiot, baserri hauen egoera une honetan nolakoa den aztertzeko; zutik, eroriak edo desagertuta dauden aipatzeko eta zutik egotekotan jendearekin edo hutsik agertzen diren.

Sakontxiki hauzoa

Goikoetxe: baserria zutik agertzen da, ala ere aspaldian hutsik dago. Arane baserrikoek erabiltzen dute borda bezala.

Elormendi: baserria zutik dago, aspaldian ez da bertan jenderik bizi.

Agerregoikua: baserria zutik dago, ala eta guztiz jendea ez da bertan bizi.

Agerreaazpikua: une honetan eroria dago, horma batzu bakarrik agertzen dira zutik. Goetxe baserrikoek erabili zuten baserri hau.

Arantzeaga: bi bizitzako baserria. Bizitza bat zutik oraindik; bestea erorita dago. Zutik dagoen etxe bizitzan ez da inor bizi.

Urruti: bi bizitzako baserria genuen. Orain famili bakarra bizi da baserri honetan.

Urruti-Saletxe: baserria zutik dago. Ala ere bertan ez da inor bizi. Urruti baserrikoek erabiltzen dute, bere eginkizunetarako.

Arantzadi: baserria zutik dago. Bertan ez da inor bizi, hutsik agertzen da. Hau ere Urruti baserrikoek erabiltzen dute.

Arantzadi-Saletxe: S. Ibarguren-ek dioenez 1927'rako baserria desagertua zegoen jadanik eta ordurako «oroia» gelditzen zen bakarrik.

Arantzadi-txiki: baserria zutik dago, bertan familia bizi da. Baserri berria dugu (1910-1920 urte tartean eraikita). Aurreko baserria erre egin zen eta bera zegoen lekuan orain sagardia eta baratza daude. Une honetan nabaritzen dira erretako baserriaren horma batzu.

Eker hauzoa

Goetxe: S. Ibarguren-ek dioenez erlijiosoen etxe bizitza izan zitekeen. Baserri hau 1927 Apirilak 17'an erre egin zen. Erreurretik bi etxe-bizitzako baserria genuen; ondoren, nagusiak berriitu zuenean, bizitza bakarrekoa egin zuen. Egun zutik dago eta familia bizi da.

Garakoetxe: «Florea» ere deiturikoa. 1927'rako

hutsik zegoen. Une honetan ez dago baserriaren inolako aztarnarik, bera egondako «oroian» herriko pilotalekua agertzen bait da.

Eskola-Etxe: mende honen hasieratik baino lehenago herriko ikastetxearen funtzioak betetzen zituen. «San Miguel» deituriko herriko elizari erantsita dago. Une honetan, erreforma batzuen ondoren, etxe bizitzan bihurtu da.

Eskola-publikoa: zutik dago, ala eta guztiz hutsik agertzen da. Herriko pilotalekuaren aldamean agertzen da.

Erretore-etxe: izenak adierazten digu bere funtzioa. Une honetan etxea berritua dago Buscalusi'tar J. M.'rengatik eta urtean zehar egun batzutarako honera etortzen da. Don Juan Ayerbe hil zenetik orain dela sei urte, herriko elizfuntzioak Santa-Lutziko apaizak betetzen ditu.

Aranburu (Anbu): zutik zegoen baserria, eta berri ondoren jendea sartu da bizitzera.

Argindegi: garai batetan Udaletxearen funtzioak betetzen zituen, eta bertan ospatzen ziren batzarrak. Orain herriko taberna dugu. Etxea zutik dago, bertan familia bizi da. Gure herri-maile Idiakez Zabalo'tar Anjel hemen bizi da.

Argindegi-etxeberri: zutik dago eta jendea bizi da.

Goianea edo Barberonea: lehen «Maioranea»ren izenarekin ezagutzen zen. Zutik eta jendea bizi delarik agertzen da.

Barbero-zarranea: «Gaikao-ren etxea» bezala ezagutu izan da. Zutik eta jendea bizi da. Barbero-zarraneak, Goianeak eta Argindegi etxe bizitza bakarra osatzen dute.

Etxaluze edo «Ezkio»: zutik dago eta familiak aste bukaera eta uda osoa, bertan igarotzen du.

«Lopetegi» etxe: Ibarguren-ek bere idazlanean ez du jaso horrelako izenik. Baserria oraindik zutik dago, baina gaizki zainduta. Bertan jenderik ez da bizi.

Agerreaundi-etxeberri: Ibarguren-ek dioenez, garai batetan Agerreaundi baserriko jabeak eraiki zuen, gerora baserria erre egin zen, eta 1927'rako bera egondako oroian pikuondoa agertzen zen bakarrik.

Nahia: Ezkion bertan, orain dela hamar urte, eraikitako etxe berria dugu. Joxe Angel Idiakez-ek eraiki zuen bere familia bertan bizi zedin.

Apaiztegi edo «Kurutze-ondo»: zutik dago etxea, ala ere une honetan hutsik agertzen da.

Barrene: baserria zutik dago, eta jendea bizi da bertan.

Pagoaga: garai batetan Udaletxe eta Ikastetxearen funtzioak betetzen zituen. Baserria zutik dago eta jendea bizi da. Aizkolari ospetsu den Joxe Ugarteburu baserri honetakoa dugu.

Alexain: lehenengo baserri zaharra bota egin zuten eta bere oroian etxe berri bat eraiki zuten orain dela bi edo hiru urte. Elizaren dokumentu zaharretan «Anexain» izenarekin agertzen da.

Zelaeta edo «Zeleta»: zutik eta jendea bizi da. Mende honetan bere inguruko lur-sailetan Ezkioko Ama Birjinaren agerkunde ezagunak izan ziren.

Zapatai-txiki: Baztarretxe-ko etxearen aurrean aurkitzen zen. Ormaiztegitik-Zumarrarako bide berria egiterakoan ezereztatu egin zuten.

«Ezpeleta» edo Zapatai-aundi: zutik eta jendea bizi da.

Baztarretxe edo Zapatai-erdikua: zutik eta familia bizi da bertan. Edaritegi eta janaridendaren funtzioak betetzen ditu. Zapatai-aundi eta Bastarretxek etxe bakarra osatzen dute.

Mediku-etxea: zutik eta familia bizi da. Etxe honetan, herriko sendagileak bere kontsultategia dauka.

Ugalde: baserria zutik dago; oraindik bertan jendea bizi da.

Endaiaenea: etxebizitza zutik agertzen da, bertan famili bat dago. Une honetan edaritegia dugu.

Bizinaitegi: baserria zutik agertzen da eta familia bizi da.

Errementari-Zarra: une honetan ez da agertzen inolako aztarnarik S. Ibargurenek dioenez, errementaria kokatutako oroian 1927'rako baratza bat bakarrik agertzen omen zen. Garai hoietarako, baratza hori Ugalde baserriarena zelarik.

Jauregi: baserria zutik dago, bertan jendea bizi da.

Zozabarro-aundi: zutik agertzen da, eta jendea dago.

«Zozabarro-berri»: izen honekin, Ugalde baserrian gerturik, orain dela urte batzuk eraikitako etxe berri bati deitzen zaio. Bi familia bizi dira etxebizitza honetan.

Gaztanai-txipi edo «Txipi»: une honetan baserria «Txipi» izenarekin bakarrik ezagutzen da (horrez gainera, bertako jendeari goitizen honetaz ezagutzen zaie). Baserria zutik agertzen da, eta familia bizi da.

Igarzabal-txiki: erorita agertzen da. Garai batetan artzaiak bertan bizi omen ziren negu alditan eta udan baserria hutsik gelditzen zen.

Igarzabal-erdi edo Igarzabal aundi: erorita.

Igarzabal goena: hau ere erorita agertzen da.

Gertutxo: Zozabarro-aundi baserriaren ondoan, orain dela urte batzu eraikitako etxe berria.

Bertan familia bizi da.

Idoeta edo Hilarion-etxeberri: 1927'rako hutsik

omen zegoen jadanik. Garai batetan Miranda baserrikoek erabili ohi dute, ala eta guztiz une honetan erorita dago.

Oru: Ixuela errotarekin gertatu dena, Oru-ko errotarekin antzekoa gertatu da. Errota, Ezkioko Udalbarrutian agertzen da eta etxe bizitza. Itsasokoan. Errota oraindik zutik egon arren, aspaldidanik gelditurik dago.

Garaion hauzoa

Garaion garakua: zutik eta familia bizi da.

Garaion azpikua: baserria zutik dago, bere ondoan jabeak beste etxe-bizitza bat eraiki du.

Plazategi: lehenengo baserria erre egin zen lehergailu bat ipini ondoren, une honetan baserri berria dago eraikita aurreko baserria egondako oroian.

Igartu erdi: zutik eta bertan familia bizi da.

Igartu beiti edo «Beiti»: zutik agertzen da eta bertan familia bizi da.

Ojarte: bi etxe-bizitzatako baserria, zutik agertzen da. Erreteila 1984'an egina. Bi etxe-bizitzetan daude familiak.

Kamintxo: Ibargurenek dioenez 1900-1902'rako baserria erre egin zen eta oroia soro batetan bihurtu zuten.

Saizabal errota: garai batetan errota genuen eta argia ere ematen inguruko baserriei saiitzen zen. Orain dela 25 urte utzi zion funtzionatzeari. Ala eta guztiz, oraindik baserria zutik dago eta familia bizi da.

Saizabal aundi: baserria zutik dago eta osatzen dituen bi etxe-bizitzetan jendea dago.

Saizabal berri: aurreko baserri hauen ondoren agertzen da. Etxe berria dugu, eta bertan jendea sartu da bizitzera jadanik.

Kantiña: ez dago inolako aztarnarik. Trenbideko zaintzaile baten etxe-bizitza genuen.

Olazabarren: baserria zutik dago, bi familia bizi dira bi etxe-bizitzatako baserria denez.

Agerrebengoa: bi etxe-bizitzatako baserria dugu. Bat zutik dago eta bestea erre egin zenetik eroria.

Andondi edo «Andua-aundi»: bi etxe-bizitzatako baserria genuen. Erre egin zen eta horma batzu nabaritzen dira bakarrik bera egondako lekuan.

Andondi berri: zutik, jendea bizi da.

Santa Lutziko Ostatuba: ostatuaren eginkizunak betetzen zituen. Garai batetan Udaletxea ere izandakoa. Zutik agertzen da eta jendea bizi da.

Antonionea: zutik agertzen da eta familia bizi da. Edaritegia dugu une honetan.

Eskola Publikoa: orain aipatutako etxe hauen ondoan dago. Ikastetxearen funtzioak bete ditu orain dela hamabi urte arte. Une honetan herriko gazteen elkarteak dugu.

Iriarte: zutik; erre baino lehen bi etxe-bizitzatako baserria genuen. Orain etxe-bizitza bakarrekoa dugu eta bertan familia bizi da.

Txoritegi: zutik eta bertan familia bizi da. Aketako lehenengo liburuan 14. horri aldean Torrano-ko Tomás Navarro bizilagunak, 1893-ko uztailaren 30'ean, Herriko Batzordeari Txoritegi deituriko baserrian edaritegia jartzeko baimena eskatzen die.

Errementari: Txoritegi aurrean agertzen den etxea. Garai batetan errementaria izandakoa eta Txoritegi baserrikoek erabiltzen zutena; baserri honek hortik dakar «Errementarikua»-ren izena.

Metxena: etxea zutik egon arren, hutsik agertzen da.

Kapotegi: zutik dago baserria eta bertan familia bizi da.

Iribarren-txiki: zutik agertzen da eta bi familia bizi dira.

Iribarren: zutik eta familia bizi da.

Andua-Etxeberri: 1971'ean baserri hau erre egin zen. Bere harmarria orain dela gutxi Udaletxera jaso zuten.

Miranda: zutik agertzen da, bertan familia bizi delarik.

Abadenea: etxea zutik dago, bertan Santa-Lutziko apaiza bizi da.

Areta hauzoa

Olazabal garakua: bi etxe-bizitzatako baserria genuen. Orain dela zazpi bat urte erori egin zen eta bere oroian borda bat eraiki du Garaion azpiko jendeak.

Olazabal azpikoa: bi etxe-bizitzatako baserria genuen ere. Orain berritua dago eta urtean zehar Oretako jendea bizi da.

Altamira: Ibar-gurenek dioenez, garai haietako desagertua zegoen. Baserria egondako oroian otadia agertzen omen zen.

Zela: bi etxe-bizitzatako baserria. Zutik dago eta une honetan familia bakarria bizi da.

Areta edo «Aeta»: lehen bi etxe-bizitzatako baserria genuen. Une honetan zutik dago eta familia bakarria bizi da.

Areta ondoan dagoen etxe-bizitza berria: orain dela 12-15 urte eraikitako etxe berria (bere izena ez digute aipatu). Egurrez eraikitako etxea.

Barretxe: lehen bi etxe-bizitzatako baserria ge-

nuen, orain bakarrekoa. Zutik agertzen da eta familia bizi da.

Galerdi: «Santa Marina» ere deiturikoa, ermita honen inguruan zegoelako. Baserria desagertu egin zen eta bere lekuan txabola bat eraiki du Anjel Idiakenez jaunak. Inguruan dauden larretan, Gipuzkoako Artzai-zakur Lehiaketa ospatzen da urtero; normalki irailaren lehenengo egunetan.

Etxezarreta: zutik agertzen da eta familia bizi da.

Arane: zutik agertzen da ere eta famili bat dago.

Etxetxo: itxurak dioenez mende honen hasieran, baserri hau erre egin zen. Ibar-gurenek aipatzen digu, bere garaiarako, horma batzuk labarekin gelditzen zirela bakarrik.

Eizagirre, Izarre edo Irimonea: baserri hau une honetan «Izar-gain» izenaren bidez ezagutzen da eta beste batzuk «Akizu» izenarekin deitzen diote. Zutik dago eta familia bizi da.

Izar-berri: orain dela urte batzu, Izar-gaineko semeek eraiki duten etxe bizitza. Zutik dago eta jendea bizi da.

Ojarbide goikua: zutik agertzen da, bertan familia bizi da.

Ojarbide bekoa: zutik eta famili bakarria bizi da.

Kaxeta goikua: trenbideko kapatazaren etxe-bizitza genuen. Orain dela urte dezente bota egin zuten.

Mendizabal: lehen bi etxe-bizitzatako baserria, une honetan bakarrekoa eta familia bizi da. Baserria zutik dago.

Aretxabaleta-txiki: bi etxe-bizitzatako baserria genuen ere. Zutik dago eta familia bakarria bizi da une honetan.

Aretxabaleta-aundi: Zutik dago eta familia bizi da.

Bizkardu hauzoa

Ojarbide-azpikua: baserri hau ere zutik dago eta familia bat bizi da bertan.

Txatxe: «Otaundi» ere deitu omen zioten. S. Ibar-gurenek dioenez bere garairako desagertua omen zegoen eta bera egondako «oroian» so-roa omen zen...

Agerrezabal: baserria zutik dago eta familia bizi da. Garai batetan artalde omen zuten eta horregatik Atxurtxako menditik Lizarretarako bidean artzai-txabola edo «borda» bat omen zuten. Borda hau oraindik zutik dago.

Agerreaundi: bi etxe-bizitzatako baserria. Zutik dago eta bi etxe-bizitzatan daude familiak.

Igartza: zutik dago eta familia bizi da.

Zalete: hau ere zutik agertzen da. Lehen bi etxe-

bizitzatako baserria genuen, baina orain bakarra dago.

Zaleta-txiki: desagertua S. Ibargurennek dioenez. Bera egondako «oroia» orain zelaia omen da. Baserri honetako materialekin «Agerrebengoa» baserria berreraiki omen zuten.

Arteaga: baserria zutik agertzen da, ala ere jendea ez da bizi iraunkorki.

Ulamendi-bekua: Ibargurennek dioenez, bere garairako erorita zeuden horma batzu bakarrik gelditzen omen ziren.

Ulamendi-goikua: hau ere erorita dago orain dela hogeitatu urte. Arteaga baserrikoek erabiltzen zuten abereak babesteko.

Bixagasti-goikua: Ibargurennek garaietan hutsik omen zegoen.

Bixagasti-bekua: hau ere egoera berdinean aurkitzen omen zen.

Ugarte: baserria zutik dago, baina aspaldidanik hutsik.

Berroeta: bi bizitzatako baserria. Zutik agertzen da eta bi bizitzak beterik daude.

Osinalde-azpikua: baserria zutik, baina ez da inor bertan bizi.

Osinalde-goikua: bi etxe-bizitzatako baserria. Zutik dago baina normalki ez da inor bertan bizi, ala ere baserrian abereak daude.

Mutxetegi: zutik dago, «Berroeta» baserrikoek erabiltzen dute bertan ganadua babesteko.

Mendietxe hauzoa

Auzkio: bi etxe-bizitzatako baserria, une honetan biak hutsik daude.

Altzorbe: Ibargurennek dioenez 1854'ean hiru familia bizi ziren; 1927'rako familia bakarra omen zegoen. Baserria zutik dago.

Txarantxo-etxeberri edo «Txantxoerreka»: baserria zutik dago baina hogeitatu urte izango dira hutsik dagoela.

Urkiola-etxeberri: Ibargurennek dioenez garai haietan hutsik zegoen.

Arruti.

Zeariaga: 1854'an hiru familia bizi ziren; 1927'an bi familia bakarrik. Une honetan baserria zutik agertzen da baina ez da inor bertan bizi.

Txarantxoro: (Txantxo): hiru etxe-bizitzatako baserria. Gero bi etxe-bizitzatakoa bihurtu zen eta une honetan zutik egon arren ez da inor bertan bizi. Familia bat Azkoitian bizi da eta bestea Azpeitin.

Ixuela errota: errota, Ezkioko udalbarrutian dago eta etxe-bizitza Azpeitiko alderdian. Errota, ala ere, urte asko dira ez dela ibiltzen.

Etxezorrota: zutik agertzen da; lau etxe-bizitzak

osatzen dute. Bi Ezkioko udalbarrutian eta besteak Itsasokoan.

Abeltzantza Ezkioko herrian bere egoera

Kontutan izan behar dugu Euskalerrriak, XIX mendetik mende honetaraino, aldaketak izan dituela baserrian barneko bizi-moduan. Adibidez, Gipuzkoako lur-motak laborantzarekin saiatzeko hain onak ez izan arren XVIII eta XIX. mendeetan, bere azaleratik nekazaritzara eskaintzen zen zati bat eta beste lurrazal gehienek basoak osatzen zituzten. Ezkion ere gauza bera gertatu zen. Ibargurennek aipatzen digu nekazariak abeltzantzari hasi zirela begiratzen garai horietan (hau da 1920-1925. urtetan) ez bait zuten jasotzen landutako ekoizpenetatik behar zen neurrian.

Azkeneko urte haietan (1920'tik aurrera) askoz ekoizpen gutxiago jasotzen omen zen herriko nekazariak ziotenez. Ez da harritzeko baserriarrek beste ikusmira batzuk lantzen saiatzea. Ezkioko herrian, Ibargurennek dioenez, abeltzantza, bilakaera eta arrakasta gehiago ari omen zen hartzen egunetik egunera. Garai hartan gari gutxiago ereiten hasi omen zen, artoak arrakasta gehiago zuen eta baserriarrek babarruna kontutan hartzen zuen ere. Abeltzantza, laborantza ordezkatzeko hasi zen, eta honela baserriarrek, lehen, sorotarako (garia, artoa eta garagarra lantzeko) erabiltzen zituzten lur-motak gero belardi eta ganadularre bihurtu zituzten. Hau kontutan izanik, garai desberdinak kokatu litezke, baserrietako bizi-modua eta bertako ekoizpenak aztertzerakoan:

a) Mendearen hasieratik-1920/1927'ra arte:

S. Ibarguren-i jarraituz, badakigu mende honen hasieran Ezkioko baserri gehienak laborantzara saiatzen direla. Baserria, berak sortzen duenari dago lotuta. Badakigu garia, artoa eta babarruna aski ereiten zela, arbia eta garagarra ere, ezagutzen zuten bezala. Lan honetarako lur gehiago erabiltzen zen eta ganaduarentzat larre gutxiago zegoen, noski. Lurak laiaren bidez lantzen ziren, goldea ez bait zen guda aurretik ezagutzen; sega, alderantziz, aspaldi ezagutzen zuten (guda aurretik behintzat).

Baserriak, diru-munduan sarturik daude; gure Sinforoso Ibargurennek bere idazlanean (*) aipatzen digunez 43. horri aldean: «Anduaga edo Santa Lutzi hauzotik esne ugari eramaten da Zumarrara eta Ordiziara. Eta hauzo honetatik (zein he-

(*) SINFOROSO IBARGUREN: ikus 4. erreferentzi puntua.

rriko beste zenbait hauzotatik) Ormaiztira eta Segurara guriña egiteko».

Garai haietan egiten zen gazta, Zumarra eta Ordiziko ferietan saltzen omen zen.

b) 1930-1945: lehen ikusi dugu nola baserri batzuk beraiek landutakoa bertan kontsumitzen bait duten (komunikazio bideetatik urrun gelditzen badira behinik behin eta Ezkion, gainera, baserri gehienak sakabanatuta agertzen dira, e. b. Sakontxiki, Bizkardu eta Mendietxe hauzoeri dagokienez) eta besteek, baserriko zenbait ekoizpen, gertuan ospatzen diren ferietara eramaten dute: Zumarrara, Ordizilara e. a.

Orduan bi ereduak ematen dira Ezkion. Lehen aipatutako urte muga eta oraingo garai artean gauzak ez dira asko aldatzen. Une honetan laborantzarako lur gutxigo erabiltzen dute, eta hasierako urteekin konparatuz, belardi eta ganadu-larre gehiago agertzen da. Goldea oraindik ez da baserrietan oso ongi ezagutzen. Hala eta guztiz azkeneko urte hauetan hasiko da erabiltzen. Dirua, erosketa batzuk egiterakoan erabiltzen dute: abereak erosterakoan, lastoa kanpotik ekartzerakoan (zerga ordainketa diruaz ere konpontzen zen). Bestalde, hauzoko lanak, hau da, «auzolan» deitzen zirenak, «ordainketan» egiten ziren (beste «auzolan» bat egiterakoan zorrak garbituta zeuden). Jaki-konposatuak oraindik ez ziren erabiltzen, Nafarroa aldetik soilik, ekartzen zuten ganaduarentzako lastoa. Soroetan, lurrak hobetzeko, ongarrimi-neralak erabiltzen zituzten.

Lehen aipatu dudanez, merkatu handirik ez zen ezagutzen. Baserritarra, inguruan ospatzen ziren ferietan agertuko da, e. b. Zumarran (bertara babarruna, patata eta sagarra eramanez).

c) 1945-gaurdaino: argi dago, baserriko eta baserritarren bizimodua aldetu dela. Une honetan industria merkatuan gaude sarturik, eta baserritarrak ezin du ukatu errealitate hori. Azken garai hauetan, mekanizazioa nagusitzen doa baserri barnean. Hau ezin dugu zalantzan jarri, Zumarran urtero abenduaren 13'an ospatzen den Santa Lutzia entzute handiko ferian azokaren zati bat mekanika eta baserriko industriagintzari eskaintzen zaionean. Baserria, zenbait ekoizpen saltzeko moduan sorarazten saiatzen da (horretarako esnebehiak jarriko ditu baserrian, beraiek ematen duten esnea zenbait kooperatibari saltzeko), Ezkion goizero, Gurelesako kamioia inguruko baserrietatik ateratzen den esnea jasotzen saiatzen da.

Azkeneko aurrerapenak honako hauek ditugu:

une honetan zerramakina erabiltzen da, traktorea —urriagoa bada ere— ezagutzen da; behiak eraisteko eraistailu berriak erabiltzen dira. Udan moztutako belarra, siloak delako lekuetan biltzen da. Eta zenbait baserrian ikuiluak berritzen hasi dira: Urruti baserrian gertatu den bezala.

ABELTZANTZA GAUR EGUN ETA MENDE HONEN HASIERAN

Inketa hau betetzerakoan kontutan izan dut kanpo-azterketa egitea, horretarako Ezkioko herriko semei galdera hauek planteatzea zen nere lehenbiziko urratsa; hurrengo, inketa hori zenbait datuekin gonparatzea (artxiboetan eta liburutuan aurkitutakoekin) eta azkenik, neronek ikusi eta bizi izandakoarekin aztertzea. Hurrengo lerro hauetan Ezkion abelkuntzaren inguruan bizi den egoera adierazi nahi dut.

1. Hazi eta explotatzen diren abere motak

Une honetan: behiak, idiak (gutxi, bakarrik Zela baserrian), behorak astoak, txerriak, ardiak, ahuntzak (ala ere abere hau mendiko larretan ibiltzea debekatua egon da, eta une honetan ez dago baimendurik edozein modura erabiltzea). Ahuntzen arazoa zein egoeran planteatzen den ikusteko, aipatuko ditut herriko artxibotako aktetan aurkituriko bi kasu:

Lehenengoa, aktak osatzen dituzten liburuen artean seigarrenean dago, 45. horri aldean. Berak dioenez Probintziako Batzordeak erabakitzen du, 1920'eko martxoaren 1'ean, Gipuzkoako lurretan larrean libre aurkitzen diren ahuntz guztiak ehi-zean botatzeko baimentzea eta bere haragia mendiko zainlariak, mikeleteak edo ehizerako txartela duen beste edozein hiritarrak jaso dezala.

Bigarrena, bostgarren liburuan aurkitu nuen, 24 eta 25. horri aldetan; bertan aipatzen da nola, 1916'eko azaroaren 26'an Argindegi Udaletxean egindako bileran, mendian hildako lau ahuntzen salmenta ospatu zen; ahuntz horien balorea 65,50 pezetatan jarri zutelarik.

Hazten diren espezie gehiago: untxiak (berandu sartuta eta orain ere ez dago asko), oiloak, ahateak, indioilarrak (Basterretxen), antzarak, eta erle batzuk. Aipatzen digute, lehen, oiloak etxetik kanpo hazten zirela, pentsurik gabe, belardietan eta baserri inguruetan aurkitzen zutenarekin nahikoa zutelakoan. Txakurrak, katuak eta akuriak ere hazten dira (cobaya edo «conejillo de indias» delakoa, herrian «kotxinitak» deitzen dietelarik.

Ez da explotatzen inolako abere mota, bereziki. Bakarrik, Alegi hauzoan Mendibeltz izeneko oilasko etxalde bat dago. Baita ere, Galdos deituriko baserrian —hau Legazpiko Udalbarrutian sartzen da— 20 bat behi Charolais arrazakoak, haragitarako hazten dituzte.

Abere mota hauen arrazak

Zaila egingo litzaiguke gaur egun arraza garbiak aurkitzea abere hauen artean. Adibidez, behien artean mestizuekin eta arraza garbiekin aurkitzen gara. Behi mestizuak agertzen zaizkigu gehienbat, egoera honek adierazten digularik arraza geroaldirako ez dela zaintzen eta gurutzamenduak nola nahi egiten direla. Mestizuen arteko gurutzamendu ezagunenak honako hauek dira: Charolais-limousinarekin, pirenaika mestizua, pirenaika urdina (pirenaika-asturianoarekin gurutzatua), eta «behi-kastainu» arraza (ez didate aipatu nola den honen gurutzamendua).

Arraza garbiak honako hauek ditugu:

Pirenaika: bertako behia genuen, baina esne gutxi zuen ezkerro beste esne behiengatik aldatua izan zen (suizak eta «pinttak», berak lagatako lekua bete zuten). Une honetan Zalete baserrian bakarrik egongo dira pirenaika motakoak.

Asturianoa: behi beltz, sendoa eta esne gutxi ematen duena. Ezkioko baserrietan behi mota hau ezaguna izan da aspaldidanik. Jose Antonio Aranzadik, Agerregoiko baserrian, hauetako abelburu batzuk baditu.

Suizak: arraza hau holandesa arraza ezagutu aurretik zegoen sarturik baserrietan.

Holandesak: «behi-pinttak» deiturikoak ere, Ezkion, guda ondoren hasi dira behinik behin ezagutzen. Arantza Aranzadik honetaz hau dio: «guda aurretik, Arantzeaga baserrian ezagutu ditut bakarrik behi pintta hauek». Guda bukatu ondoren Idiazabalgo herritik Gregorio Urbizu iritsi omen zen Ezkioko herrira 200 bat ardikin (Olazabal garaikuan bizitzen jarri zelarik). Ala ere 1948'rako artaldea laga eta tratalari bezala hasi zen. Tratalari munduan sartu ondoren, urrutian ospatzen ziren ferietara hasi omen zen joaten (Gazteiza edoeta Santanderra). Komertzio honen bidez hasi ziren ongi ezagutzen behi pinttak eta beste arraza batzuk.

Charolaisak: haragitako erabiltzen dira, ala ere hauetako abelburu gutxi ikusi ditut.

Dinamarkakoa: Euskalerrian arraza berria dugu. Pinttaren itxura berdina dauka, hau ere txuri-

beltza bait dugu. Orain 2 urte, Probintzi osoan hasi ziren banatzen Dinamarkatik ekarri ondoren. Ezkioko Goetxe baserrian hauetako 5 behi daude.

Ezkioko derminuan ba omen zeuden «betizu» deituriko behi moeta ospetsuak. Izazpiko mendi magalean zehar aurkitzen ziren larrean. Joxe M.^o Zendoiak dioenez, duela 30-35 urte desagertu omen ziren Izazpiko larretatik. Baserritarra pinua sartzen hasi zenean, lursail dexente itxi egin zuen eta horrela mendiko larrek murriztuta gelditu ziren. Hala ere interesgarriena, Izazpiko larretan betizuekin nola amaitu zen, iruditzen zait. Abere hauek, oso basatiak dira eta berauek hezitzea ez da aisez lortzen. Gauzak ongi aztertu gabe, bakarrik aipatu dezaket Joxe M.^o Zendoiak zihurtatu didana: orain dela 30-35 urte Izazpiko larretan gizonak ikusi zituen «betizuak» tirokatzten.

Zaldien artean «hibridoa» da gehienbat banatu dena. Behorrekin gurutzatzeko zaldien artean «Percheron» arrazakoa ere ikusi dut.

1923.go irailaren 29'an irikitako aktak, egoera hau aipatzen du herrian, aurkitzen diren astoetaz:

- egun hoietan zenbaturiko astoak: 65.
- bakoitzaren altxaldia batez beste: metroa eta 0,5 zm.
- asto bakoitzaren pisua: 90 kilo.
- batz besteko balioa: 70 pezeta.
- bakoitzak eraman dezaken zama: 90 kilo.

Ardi tartean «latxa» arrazakoa dugu nagusi. Herrian ez da ezagutzen beste inolako moetarik. Hemen ematen den giro gogorrerako «latxa» dugu arraza hoberena. Ardi moeta honen barruan aniztasunak agertzen dira: Izazpiko larretan behatu nituen: mutur beltzak (ugarienak), pinttak (mutur zuri-beltzdunak), mutur gorriak (hauek ere ugari) eta mutur zuriak (gutxi). Orain dela 12 bat urte, Angel Aranzadi artzaiak, Nafarroa aldetik ekarritako 30 «sasi-ardi» delakoak hartu zituen. Artalde nagusiarekin nahasturik gabe, mendira bidali zituen, eta handik 2 urtetara «sasi-ardi» hauek menditik ekarri ondoren, beste artalde nagusiarekin nahastu zituen. (Begiratu 3. diapositiba).

2. Ikuiluan hazitako abereak

Normalki behiak eta txahalak udan larrean ibiltzen ziren, baina eguerdian eta gauero, etxe barrura sartzen ziren. Bestalde, negu aroan, ura edatera izan ezean, ez ziran ikuilutik ateratzen. Idiak, astoak, zezena, txerriak, txerrikokitan) eta

Ardiei: udan, larrean ibiltzen ziren eta negu-ko janaria hau zuten: goizean: artaleak zaiarekin.

Arratsaldean: giro ona izan ezker, larrean ibili ondoren, ikuiluan «belar ondoa» eta arbia puskatuta izaten zuten.

Lastoa ere eskaintzen zitzairen, eta oraindik Nafarroatik ekartzen den lastoa ematen zaie.

Oraingo artzaiak «alpapa-ondoa» ere erabiltzen dute ardiak elikatzerakoan.

Oiloei: lehen, baserrian «libre» ibiltzen zirenean, beraiek lortzen zuten belardietan egunero-ko janaria. Ala ere, artaleak eta garagarra ematen zitzairen. Normalki, patata egosia eta zahiarekin egindako «zaperoa» izango zuten egunero jateko.

Untxiak eta oiloak une honetan pentsu konposakinarekin hazten dira. Ez da harritzekoa, zenbait baserriar lehen hazten ziren oilaskoetaz gogoratzea, aipatzen dutenez «bere haragia askoz gozoago eta finagoa bait zen dastamenerako».

Txerriei: 27. puntuan aipatuko dut zehazki hauen janaria.

4. Abereak larrera noiz ateratzen diren

Behiak: udan: egunero eraitsi ondoren larrera ateratzen ziren, hau da, goizeko 7'tatik eguerdiko 11 arte, ordu honetan barrura sartzen ziren eta gero ilunabarrean, berriro eraitsi ondoren larrera ateratzen ziren, hau da arratsaldeko 8'tatik gaueko 10'ak arte.

Neguan: etxe barrutik atera gabe egoten ziren.

Ardiak: udan: artaldeak mendian egoten ziren (Atxurtzaga, Lizarreta eta Elortxu inguruan); urrian edo azaroko sasoian beheko larretara ekartzen zituzten.

Neguan: giroa kontutan izanik, artaldea goizeko 10'ak edo 11'etan ateratzen da ikuilutik eta ilunabarrean (arratsaldeko 5'ak edo 6'etan) berriro bordara itzultzen da.

5. Herri larreak

Ezkioko udalbarrutian ez dira agertzen herri eremuak. Belardi eta larre ugariak Izazpiko mendian agertzen dira; baina hauek eremu partikularrak ditugu. Ezkioko udalbarrutiari dagokionez, Izazpiko eremuetan baserri hauen sailak agertzen zaizkigu: Plazategi, Agerregoikoa, Aranzaditxiki, Garaion-ena e. t.



Izazpiko gailurrean, herri hauen ingurunea, muga-harri baten bidez adierazia dago. Bertan, herri hoi lehen hizkiak marraztuta agertzen dira (hizki bakoitza, berari dagokion herri aldera begira dago).

Planoan adierazitako eremu hoietatik, Izazpiko gailurrean agertzen direnak, larretarako erabiltzen dira behinik behin. Ala eta guztiz, Izazpiko maldan, lur ugari pinua (pinus insignis) 1920'tik aurrera landatuta dago.

Ezki mailan interesgarria litzake, pinus insignis-aren landaketak ze ondorio ekarri dituen aztertzea. Lehen ikerketa bat egin ondoren, ondorio batzuk aipatu ditzaket:

— pinua landatzerakoan, aspaldidanik sustaiak botata zeuzkaten zuhaitzak murrizten joan dira, adibidez: txilarra, pagondoa, haritza, intzaurra, gaztainondoa.

— eremu ugarietan landu den ezker, abelkuntzaren kaltetan gertatu da. Mendian zebiltzen abelburuak, ohizko larrek murrizturik ikusi zituzten eta lur-sail ugari burdin-hariz inguraturik.

— azkenik, erlezantzak ere galerak jasan ditu. Erleak erabiltzen zituen lorak urritzerakoan bere elikagaia, logikoki, gutxitu egin zen. Gainera, pinus insignis-aren lorea ez da atsegina erlearentzat.

Pinuaren galerak, gehiago aztertu nahi izan ezkero begiratu Koldo Osoro-ren idazlana (6).

(6) KOLDO OSORO: «El caserio: historia, socieconomía y tierra», argitaratzen du: Club Deportivo Elbar.

6. Goi-mendiko larretara bidaltzen diren abereak

Izazpian dauden larretara ardiak eta behorrak beti eraman oi izan dira. Halaxe, orain dela 40 urte, «larre-behiak» ere ibiltzen omen ziren. «Larre-behi» hauek, entzute handiko «betizuak» genituen.

Ezkioko udalbarrutian, 1935-1950 urte mugetan, artalde asko ez zeuden: Osinalde, Berroeta, Agerregoiko eta Olazabal-garaikuan bakarren batzu. Urte muga hauen aurretik: Agerrezabalean, Zeariagan (2 etxe-bizitzetan), Txarantxoron (Txantxo), Etxezorrotan, Auzkion, Txarantxo-Etxeberrin eta Osinalde azpikuan ere artaldeak zeuden. Artalde bereiztu ondoren, Izazpiko larretara lehenbizi antzuak eta bildotsak bidaltzen ziran; gero rago artalde osoa. Ardiak, goiko larretara, apirila edo maiatzan abiatzen ziren —eguraldiak lagundu ezker— eta azaroan beheraka ekartzen zituzten. Ezkion entzun dudak esaldi honek, baserritarren sena gauzak egiterakoan adierazten du: «Santu-Guztiak ezker artzaiak behera» ... Normalki, artaldeekin 5 edo 6 hilabete iraungo zituzten mendi tontorrean.

Behorrak garai gehiagoan iraungo dute; neguko eguraldi gaiztoekin bakarrik beheratuko dituzte.

Behiei dagokienez, lehenago zeuden «betizuak» desagertu ondoren, une honetan Izazpian ez da ikusten behiarik. Halabaina, Izazpiko larretan behorrak eta artalde batzu ibili arren, oraingo abelburuen kopurua lehenagokoarekin parekatuz murriztagoa dugu. Larre hauetan ikerketak egiten egon ondoren, abelburuen kopurua nahiko larria nabaritu nuen. Kontutan eduki behar da, 1985. go. uda, aspaldidanik bururatzan den lehorrenetakoa gertatu dela eta egoera larri honek erlazioa eduki liteke abelburuengan nabaritu dugun murriztasunetaz.


7. Ganaduaren aterpeak

Ezkioko ingurunean, gehienbat artzaien bordak edo txabolak ezagutu dira. Borda hauetatik, Atxurtzagako eremuetan lauraino zenbatu ditugu, hoietatik hiru zutik daudenak eta laugarrena eroria. Kizkitzako gailurretik Atxurtzagako bidean beste borda bat agertzen da, Beotegi deituriko mendian (borda honen jabeak Itsasoko Ariola baserrikoek ditugu).

Izazpiko maldan, Elortxu deituriko tontorrean beste bi bordaren aztarnak jaso ditugu. Hauek, aspaldidanik eroriak daude; une honetan harri ba-

naka batzu gelditzen dira beraiek egondako ororian. (Behatu hurrengo planoak).

Mendietxe deituriko eremuetan, beste borda batzu agertzen dira. 39. atalean puntu hau zehazkiago garaturik aurkitzen da.



ELORTXUKO BORDAK
(harresi hondakinetatik ateratako planoak)

A: sarrera hegomendebaldera begira.
B: sarrera iparraldera begira.

8. Jabetasun ezaugarri eta seinaleak

Seinaleak egiterakoan 2 ezaugarri mota ezagutu dira: herriarena eta etxearena.

Herriarena: behorrei, sutan egondako burdina baten medioz, herriaren hasierako letra izterrean marrastan zitzaien. Esate baterako Ezkion Angel Aranzadi artzaiak (1980 hila) B eta E letrak erabiltzen zituen. B hizkia Beasain herriari dagokio eta Aralar-era bidali behar zituen behorrei jartzen zien. Aralarreko larretan abelburuak edukitzekoan, partaidetasuna eduki behar zen eta Ezkioko herriak horretarako ez zuen inolako posibilitate-

(begiratu 10. diapositiba)



SEILUAK
(zaldieria seinalatze burdinak)

rik; alderantziz Beasaingo herriak eskubidea zeukan bere abelburuak Aralarreko larretara bidaltzeko.

Izazpian dauden abelburuak, E letra izterrean izan ezkerro aski dute (E: Ezkio udalbarrutiaren deituratik hartu duten hizkia).

Etxearena: ilean eta belarrian.


Ilean: pintura plastikarekin egindako marrak. Gehienbat erabili izan diren margoak: urdina, gorria, beltza eta berdea. Marra hori bizkar gainean jartzen zitzairen (batez ere ipurtondoan) mendira bidaltzeko artaldetik bereizten ziren ardiei, esate baterako: ardi-antzuak, bildotsak, eta aharibil-dotsa.

Pintura plastikaren orde, lehenik, beste nahasketa bat erabili ohi izan da: «linazi olio» eta lur-hautsarekin egindako pintura mota. Baina, baieztatu didatenez nahasketa hori ez zen hain ona, bi hilabetetarako desagertu egiten bait zen.

Une honetan, artzai gehienek pintura plastika erabiltzen dute bizkar-gaineko marra jartzerakoan (gorria eta berdea izan dira, batez ere, aurkitu ditudan koloreak).

Belarrian: aintzinatik, etxeko ezaugarri berezia belarrian ezartzen zen. Honela, galdutako ardiaren etxekotasuna errez adierazi zitekeen. Ezkion ezagutu diren adierazgarriak hauexek dira: belarrian zuloa egitea, koska edo eta ebaki bat.

Ezkio ingurunean, neroni adierazi dizkidaten «markak» edo ezaugarriak, marrazkien bidez jaso ditut:



- Joxe M.^a Zendoiak bere jaiotetxeko artaldean ezaugarri hori ezagutu du (Basajaundegi baserrian, Aratz-Errekako hauzoan).
- Ezkioko ingurunean, ezaugarri hori artzaiak maiz erabili dute.
- Ezkioko Agerregoko baserrian, bertako ardiak seinalatzerakoan, aspaldidanik ezaugarri hori erabiltzen zuten. Hemengo semeak —Angel Aranzadik— handik urtetara, artalde bat erosi zuten, jaiotetxeko ezaugarria hartu zuen bere ardiak seinalatzerakoan.

Nola jartzen zen ezaugarria ardiaren belarrian? Agerregoko sistima haxe erabiltzen zuten: «ardiaren belarria hesohola baten gainean jarri ondoren, burdin borobil baten erdia ezartzen zitzaion belarriaren ertzean eta burdina mazuarekin jo ondoren, belarriaren pusketa ebakita zegoen».

Abereak ez dute eraman inolako apaiundura berezirik. Ezkion, bakarrik ezkondu aurretik «arreo» eramaten duten idi parek apaingarri berezi batzuekin prestatzea ezagutu dute. Arreo zeraman gurdia ere doinu berezia ateraz joaten zen bidez-bide (zurezko ardatzari «orraziak» ezarri ondoren, lortzen zuten doinua). Idien apaingarriak, une horretarako, burusiak eta soinu apaleko, txilina osatutako goilarea ziran. Angel Idia-kez Zabalok aipatu zidanez (1985.go uztailan) azkeneko idi bikotea «arreo» eramanez, berak Berroetako baserritik Agerregoko bidean ikusi omen zituen, Eustasio Aranzadi eta Lorenza Urkiola-ren ezkontzarekin (Ezkion ezkondu ziran 1919.go urriaren 15'ean).

9.10. Lanerako erabiltzen diren abereak

Oraingo baserria industria eta mekanika munduan sartua dagoela aipatu dut hasieran. Eite honetan Ezkio ere ez da ezberdina; baserri askotan ikusten ditugu berebilak, traktoreak, zerramakina edo «motozerra», kamioiak e. a. Basotik pinu enborrak ateratzerakoan, kamioiak garrantzizko betebeharra jokatzeko du. Une honetan, hondeagailuaren bidez, bide berriak iriki ondoren, ebakitako basoraino iritsi daiteke kamioiarekin eta honela pinu enborrak atera erreztasun guztiaz.

Egoera honek zenbait aberen zeregina galerazi du. Orain idiak uztarrian erantsita Zela baserrian erabiltzen dira bakarrik. Asto bikoteran bat zamak eramaterakoan erabiltzen dira ere eta Ezkioko basoetatik zuhaitz-enborrak ateratzen orain dela 10 bat urte neronek ikusi nituen azkeneko mandoak.

Baserriaren lanetarako normalki erabili izan ohi diren abereak hauexek ditugu: idia, behia, behorra, zaldia, mandoa eta kasu batzutan zezena izan da erabilia ere. Esate baterako, Agerreaundi baserrikoak, behi batekin uztarrira erantsita zezena ipintzen omen zuten lanean.

Abere bakoitzaren betekizuna

Astoa: sorotik ganadu-sortak ekartzerakoan erabiltzen zuten. Arbia, belarra, erremolatxa e. a. «kartolak» deituriko otarretan ekartzen zituen.

Idiak: lurrak goldatzerakoan eta baso-lanetan. Uztarrarian lotuta erabiltzen ziren.

Behiak: idiak betetzen zuten eginkizun berdinean erabiltzen ziren.

Behorra/Zaldia: soroak goldatzeko erabili izan ohi dira. Behorra baliagarria izan da gertuan ospatzen ziren ferietara, baserriko jeneroak eramaterakoan. Eginkizun honetarako, astoa ere, erabili dute. Baina une honetan, hauen laguntsunarik ez da behar, eginkizun hori berebilak betetzen duelako.

Mandoa: Ezkion mando gutxi ezagutu dute; ikusi dituztenak baso-lanetan izan dira (astoak baino indar gehiago zutelako lan horretarako).

11. Uztarrarian lotzen diren abereak

Normalki uztarrarian idiak eta behiak lotzen ziren. Horrela, gurdiak eta lerak arrastaka eramaten zituzten. Orain dela gutxi aipatu dut, nola zezena ere, erabilia izan ohi den uztarrarian.

(Begiratu 13. diapositiba)

Non egiten dituzte uztarriak?

Une honetan, Ezkio inguruan, ez ditu inork uztarriak egiten. Ala ere izendatu dizkidate garai batetan ospetsuak izan diren uztargileak:

- Antzuolan bi uztargile zeuden.
- Zumarrako Eitza hauzoan beste bat.


- Amezketan uztargile bakarra.
- Azkoitin beste bat.
- Azpeiti: herri hau oso ezaguna izan omen da uztarrigintzan. Jaso ditudan datuak hauexek dira:
 - Oinatz hauzoan uztargile bat zegoen.
 - Izarraitz bailarako, Etxeberri baserrian, beste bat.
 - «Azpeitiko Boni» goitizinarekin deituri-koa.
 - «Azpeitiko Muin» goitizinarekin deituri-koa.

Uztarriari ezartzen zaizkion apaingarriak

Baserritarrek, uztarri baten premia zutenean, uztargilea ekarri behar izaten zuten baserrira. Honek, ganaduaren adarren eta kopetaren artean, neurriak hartzen zituen. Gero, egurra bera, lantzen hasten zen. Uztarriak hiru zati berezi izango ditu:

- adarrak kokatzen diren lekua
- idiaren lepoan joan behar duen alderdia
- eta pertika sartuta joan behar duen zuloa, «gurteriaren» laguntzarekin.

Uztargileak, uztarriari eitea eman ondoren azken unean landu egiten du. Egur bakoitzaren lan-keta desberdina izango da, zeren uztargile bakoitza irudi eta marrazki ezberdinak ateratzen baitu. (Begiratu hurrengo marrazkia).



EZKIOKO «ARGINDEGI» ETXEBIZITZAN DAGOEN UZTARRIA
(Azkoitiko uztargileak egina)

Gero, idiak uztarrarian lotzerakoan, «kopetakoa» ezartzen zitzaien, uztarriak aurrekaldean igurtzi ez ziezaien. Hitza berak aipatzen du non zihoan kokatua. Kopetako honi lits (flekoak) batzuk erantsi liezaioke (gehienetan gorriak edo berdeak ziran), hedearen bidez idiaren kopetaurrean lotzen zen. Azkenik, denaren gainean etxeko ardi-

narru hoberena ezartzen zen. Bukatzeko, ardi-narrua «surde-soka» batez lotuko zuten. «Surde-soka», ganaduaren isatzeko ilearekin egindako soka genuen. Onena behorraren isatzeko ilea omen da, luzea eta garbia bait da. Idiarena ere erabili izan omen dute. Behiaren isatsarekin egindako «surde-soka» ez dugu hain ona.


12. Zamarekin ibiltzen diren abereen zela nolakoa den

Ganaduak zama erabiltzekotan «txalmea» eta «kartolak» behar zitun. Tresna hauek era honetara ezartzen zitzaizkion:

— Lehenbizi «txalma» (edo asto-pastie) astoaren bizkar gainean jarri behar zen, kartolak ezar-terakoan mina eman ez ziezaien. Txalma gari-lastoz egiten zuten. Prozesua hau genuen: zaku hutsa baten neurria hartu ondoren, gari lastoa luzera berdinean ebakitzen zen, zaku barruan sartu eta lana amaitzeko zakua eta gari-lastoa her- tsiki biltzen zutelarik, hori dena orratzarekin jos- ten zuten.

— Txalma bukatu ondoren, astoari bizkarrean ezartzen zitzaion eta sabel azpitik zihoan uhala- rekin edo «txintxearekin» irmoki lotzen zen.

— Txalmaren gainetik kartolak edo «asta-zes- tok» zihoazten. Hauen barruan zeraman astoak zama. Ezkion asta-zestoei «asta-balak» ere dei- tzen zaie. Kartolak eta asta-zestok desberdinak ditugu. Kartolak irekiak dira (egurrak eta antze- ko gauzak eramateko); asta-zestoak, alderantziz, itxiak ditugu, otarren irudia daukate.



TXALMA.

Astoak eta zaldiak erabiltzen zuten txalma desberdina zen. Eitea ezberdina zeukan, batek edo besteak erabiltzerakoan. Hauen gainean ja- rrita, joan nahi izan ezker, txalmaren gainean zihoazten tresnak pixkat aldatzen ziren. Astoa- ri, txalmaren gainetik burusia edo manta bat ezar- tzen zitzaion bere gainean joatekotan (asta-zes- toak eramán arren —e. b. ferira zihoaztenean— ez zegoen inolako zailtasuna astoaren bizkar-gai- nean joateko).

Zaldiei, alderantziz, txalmaren itxurazko «ze- la» ezartzen zieten. Zela hori narruzkoa zen. Ez- kion zaldiak eta behorrak zelabere baliotsuak izan dira. 1979. urte arte, zela hauek ikusten zi-

ren Ezkio aldean. Angel Aranzadik «Errege egu- naren» gaua aurretik, Zumarran urtero ospatzen den kabalgatarako, zaldia, zela guztiarekin pres- tatuta eramaten zuen, Errege haietariko bat ber- tan jarrita joan zedin.

13. Etxeko abereak lotuta edukitzeko era

Behiak: Ikuiluan, idiak eta behiak, burdinezko kateren bidez lotzen ziren. Katea, askaren barre- nean zegoen uztai jiragarri batetara eransten ze- larik. Behiak egurrezko langa datekin bereiztuta zeuden. Une honetan ez da horrelakorik erabil- tzen; normalki adreiluarekin eraikitako horma- txoa altxatzen da asken tartean (e. b. Txipi base- rrian). Larrera bidaltzerakoan ez zitzairen kokatzen inolako lokarriarik. Orain, behiak, argi-indarra ema- ten duen bateriarekin zaintzen dira. Larrea dagoen zelaia, kable mehe batekin inguratzen da eta ka- ble hori bateriari eransten zaio; honela argi-in- darrez inguraturik gelditzen da zelai guztia. Ala ere, oraindik itxidurak egiterakoan hesohola eta burdin hariarekin egindako hesiak erabiltzen dira (esate baterako Izazpiko eremu partikularrak era honetan daude itxita).

Beste era bat, behiak uztarrian eransterakoan izango da; baina hori 11.r galderan erantzun dut zehatz-mehatz.

Ardiak: Gizentzeko dauden ardi zaharrak lo- karri batekin lotzen dira ikuiluan. Besteak ez dira inoiz lotuko.

Astoak: Ikuiluan lotzerakoan, lokarria edo bur- dinezko katea erabili izan ohi dira. Kanpora ate- ratzerakoan astoari kabestrua eta lokarria ezar- tzen zitzaizkion. Larrean utzi ezker, adar bati lotuta dagoen lokarri luzez lagako dute.

Behorra/Zaldia: Ikuiluan, normalki, gutxi ego- ten dira. Urtean zehar Izazpiko larretan ibiltzen dira. Nik ezagutu dudanez, ikuiluan zaldia baka- rrik edukitzen zen behorrak ernaltzeko garaiean, jendeari gauzak errazteko. (Angel Aranzadik edu- ki zituen zaldiak eginkizun honetarako ziren gehienbat). Hauek, inoiz lotzen baziren ere ka- bestrua eta katearekin izango zen. Lanerako ka- bestrua eta lokarria jartzen zitzairen.

Ahuntzak: pinadietan larrean ibiltzen direnez, batzuk inguruko zuhaitz bati lokarri baten bidez lotuta agertzen dira. Ala ere, Ezkion ahuntzen kopurua ez da nabaritzen, nahiko kaskarra da eta.

Txakurrak: Etxea zaintzen egoten direnak, bur- dinezko kate fin batez lotuko dituzte atariaren inguruan.

14,15. Zintzarriak eta koskailuak

Ezkion ganadu gehiena zintzarriarekin doa. Ardiak, behorrak, ahuntzak, mota ezberdinetako zintzarriak daramatzate. Lehen, behiei, larrera ateratzekoan jartzen zitzaizkien zintzarriak; une honetan ferietara eta ganadu-lehiaketara eramaterakoan bakarrik jartzen zaizkie.

Ardi tartean, edozeini ezartzen zaio zintzarria, nongo larretan dabilzan jakiteko. Ardiak eramaten dituzten zintzarriak txikiak dira, eta ateratzen duten doinua apala da. Artaldean, ala ere, egoten dira beste hots latzagoak (lodiak), dunbarena alegia.

Behorrek erabiltzen dituzten zintzarrien doinua nahiko lodia da eta urrutira entzuten dena.

Idiei, kasu batzutan jarri izan zaizkie zintzarriak. Egoera hau zortzigarren galderan aztertu dut; bertan adierazita gelditu da idiak nola zihoazten prestatuta ezkongaien arreoan eramaterakoan. Apaingarrien artean koskailuz osatutako idunkoa zeramaten lepoan.

Txakurrei: koskabiloak ezartzen zitzaizkien. Une honetan ez da horrelako ohiturarik gelditzen.

Zintzarri hauek, gehienbat kobrea eta latoiaz daude eginda. Itxurak dioenez, brontzea ez da erabiltzen lan honetarako. Kobrea, burdinarekin nahasten da ere zintzarriak egiterakoan.

Zintzarriak, doinua ateratzeko, barruan mihia behar du. Mihi hori ganaduaren adar puntarekin egin zitekeen. Eginkizun horretarako egurrezko mihiak ez zuen balio (ateratzen duen doinu txarrentzat izan zitekeen). Gero, zintzarria lepotik dilindan jartzerakoan uhala behar da. Une honetan abereak erabiltzen dituzten uhala gehienak narruzkoak dira. Baina, orain dela urte batzuk Ezkion ezagutu dituzte gaztainarekin egindako uhalak. Betebehar horretarako, gaztaina omen da hoberena —uretan sartu ondoren gehiena okertzen delako—. Uhala mota hau behiei eta behorrei ezarriko zitzaien gehienbat.

Ezkion erabiltzen diren derminuak, zintzarri mota ezberdinak adierazteko, hauexek dira:

- zintzarrie txikie (ardiena)
- zintzarrie handie (behorrena)
- eta «dunbak» (ardiek erabiltzen dituztenak)

(Begiratu 11. diapositiba)

16,19. Gaixotasuna eta tximistaren aurkako babesa

Ganadua zori txarretatik gordetzeko, ikuiluan

eta sukaldean Santuen irudiak jartzen ziren. San Blas, etxabere guztien zaintzaile bezala ezagutu izan dute. Ala ere, Antonio Paduako Sanduaren estampa dugu, ikuiluetan gehien jartzen zena. Sandu honen babesarekin galdutako gauzak eta abereak aurkitu zitezkeen. Une batzutan Kizkitzako Ama Birjinaren irudia ere, izan da erabilia, bere baseliza Ezkioko herritik gertu gelditzen bait da eta bere eragina nabaritzen dute bertako herritarrek.


Ala eta guztiz ere, estanpak jartzearen ohiturarekin ez da jarraitzen.

Gurutzeak ere jarri izan dira ikuiluko sarreraren atean eta etxebizitzako sarreraren atean. Alderantziz, ohitura honek badu oraindik jarrera pitin bat. Horrelaxe, ikusi diugu Agerregoiko baserrian eta Argindegiko etxebizitzan gurutze ezberdinak sarrerako atean.

Argindegiko Angel Idiakez-ek aipatu zidanez, berak ohitura honi oraindik jarraitzen dio eta urtero, maiatzan bedeinkatutako erremuarekin gurutze bat kokatzen du bere etxebizitzaren ate aurrean. Erramuak, Gurutze-Donearen egunean bedeinkatzen ziren, egun hori maiatzaren hiruan ospatzen delarik. Gaur egun ohitura honek ez du jarraipenik, baina lehen sorotan ere jartzen ziren gurutzeak. Angel Idiakez-ek, Juan Donearen egunean arantza-zuriarekin (arantzuri, elorri) egindako gurutzeak prestatzen zituen. Eman zidan adierazpenakin, gurutze hoien itxura erakustea nahi izan dut marrazki hauen bidez:

1. Zutik: arantzuriaren adarra jartzen zen, bere arantzakin.

2. Horizontalki: «San Juan» lorea eta ezpatarekin egindako adartxoak, arantzuriaren tartean sartzen zen.



Angel Idiakez-ek, Pagoaga baserrian bizi izan zen Joxe Martin Gorrotxategi aitona ikusi omen zuen orain urte asko, gurutze berezi hauek presatzen. Handik aurrera, berak ere, joera berdina hartu omen zuen gurutze hauek egiterakoan eta beraien helburua soroak babestea zen, noski, bertan kokatu ondoren. Horretarako, gurutzea esohola baten gainean ezartzen zuen. Egun, ohitura hau ahanzturik ez eduki arren, ez du berarekin jarraitzen. Berak dionez «gaurko jendeak horrelako ohiturak ahanztuta dauzka eta gogoratu ezker, gainera, parre egiten dute beraietaz.

Bide desberdinak zeuden ganadua gaitzetatik babesterakoan: albaitariari deitzea edo sendagilea («kuranderoa» edo «petrikilo», beste era batetara izendatua) baserrira ekartzea. Baserritarak, kasu ugarietan, sendagileari deituko zion —itxurak dioenez segurtasun gehiago zegoen berarengan—. Halarik ere, herriko artxiboan aurkitu ditut dokumentoak, egoera zer bait aldatzen dutelarik:

a) 1925. apirilaren 19-ko aktetan, aipatzen da Igartu-Beiti baserriko Joxe Ignazio Mendiguren-en 3 behiek, «glozopeda» deituriko gaitzetaz kutsatu direla. Garai haietan zegoen albaitariak, Anastasio Rodriguez jaunak, gaixotasuna zabaldu ez zedin arreta guztiak kontutan hartu zituen. (Begiratu 1924.go apirilaren 1'ean eta 1930.go urtarrilaren 1'ean arteko akten liburua: 71. horri aldean).

b) Halaxe, 103. horri aldean antzeko beste kasu batekin aurkitzen gara. Oraingoan Anastasio Rodriguez albaitariak, 1926.go apirilaren 22'an Ugalde baserriko Candido Arizti-ren 2 behiei gaitz berdina aurkitu die —glozopeda gaitza.

Kasu hauengatik, azpimarratu dezagun garai haietan albaitariaren eta sendagailuen beharra nabaria zela, batez ere gaitz berria agertzera-koan. Halere, Ezkioko herriak 1913.go urtean iskanbilak izan zituen albaitariarekin. 1915.go irailaren 28'ko aktak dioenez, albaitariaren eta Udaltearen arteko arazoa konponduta gelditzen da. Albaitariaren lanpostuaz, Zumarrako Anastasio Rodriguez jauna jabetzen da —arduratzeko den lanarengatik urtean zehar 100 peza emango dizkiote.

Abereak, tximistetatik babesteko, arantzuria erabiliko zuten. Angel Idiakez-ek dioenez, arantzuriarengan artzaiak sinismen handia omen dute. Kondatu zidanez, bi artzaien artean batek besteari honela zion «hodei eta trumoi handienarekin ere mendian ibiltzeko ez zeukala bildurrik» antzazuri» adar bat eskuan izan ezker»...

Arantza Aranzadik aipatzen zidan hodeia hasi ezker, etxe barruan erramu bedeinkatua erretzen zela eta etxebizitzako lehio batetik ur bedeinkatua botatzen zela kanpora, Barbara Doinaren letaniarekin otoitz eginez:

«Santa Barbara bendita
en el cielo está escrito
papel y agua bendita
viva Santa Barbara bendita»

Otoiz hau ez da itzulpena inolaz ere, baiezta-tu digutenez eskaria erdaraz esaten zuten.

Argizarizko kandela bedeinkatuak, baserriko sukaldean edo elizan ere pizten ziren, etxeko jendeak eta abereak zorte ona eduki zezaten. Baita, zorte ona izateko Paduako Antonio Donearen alde, mezak ateratzen zituzten eta honen izenean erremusina ere ematen zuten.

17. Sendatzerakoan, egoera bakoitzean erabiltzen diren sendagailuak

Ezkioko herrian ez zegoen «kuranderorik», baina ingurunean Itsasoko Ori baserrian baze- goen kurandero ospetsua: «Oriko kuranderoa» izendatzen zutelarik. Baserritik-baserrira, gaitzaz kutsaturik zeuden abereak sendatzen erabili zu- ten. Herriko jendeak, gaixotasun ezberdinentzat erabili izan ohi diren erremedioak aipatu dizki- date:

«Nafarraiarekin»: gaitz hau sendatzeko ez da ezagutzen erremedio zehatza. Hanketan eta mi- hianean agertzen da; ahokoa ospina eta gatzare- kin zaindu liteke eta hankakoa zotalarekin igur- tziaz. Gaitz honekin kutsatuta dagoen aberea, le- gorrean eduki behar da eta 40 egunetan manta bat bizkar gainean duelarik, ikuilutik atera gabe eduki.

«Pulmoniarekin»: botila batetan ardoa eta olio nahastu ondoren, gaitza duen abereari edan arazi behar zaio. Gorputza, ospinarekin igurtzi li- teke, ondoren manta bat jarri lezaioke bizkar gainean, berotasuna galdu ez dezan.

Okarekin»: (Enpatxua):

— ardo-olioa nahasturik eman edateko.

— kipulak egosita jan araztea sendagailu ona zen.

Oriko kuranderoak idi baten oka sendatzeko, oilosalda edateko eman zion; baina oilosalda prestatzerakoan, oiloa hil ondoren luma eta guzti sartu zuen lapikoan.



1.— Ezkioko udalbarrutian agertzen diren larre-behiak (zehazki Agerregoiko baserrian). Behi moeta hauek, gehienbat haragitarako erabiltzen dira.



2.— Ezkioko udalbarrutian erleak ere agertzen dira. Kasu honetan Joxe M.^o Zendoia «erle-maisuak», zuhaitzean dagoen erlakumea gainekaldean ikusten den erlauntzara aldatzea nahi du.



3.— Izazpiko larretan, aztertutako «latxa» arrazadun artaldea. Aurrean agertzen diren ardi tartean, «mutur beltzetaz» jabetu.



4.— «Pottoka» deituriko zaldieria moeta. Estimazio handia dauka, gehienbat balentziar tratalari artean.



5.— Santa Lutziko ferian, banakako ekartzen dituzten ahuntzak.



6.— Santa Lutziko ferian, balentziar tratalariak eragipen handia dute. Beraiek diotenez, feri honetara eramaten den «pottokak» lur haietan egiten duten laranja bilketarekin ongi erantzuten omen du.



7.— Egun, Santa Lutziko ferian, makineriak garrantzi handia du. Argazkian, une honetan eramaten duten makineria moeta antzeman dezakegu.



8.— Ezkion, Gipuzkoako XVII ardi zakur Txapelketan parte hartu zuten artzaiak bere zakurrekin.



9.— Atxurzaga inguruan aurkitzen den txabola. «Agerrezabaleko txabola» deitzen diote. Une honetan ia deuseztaturik dago.



10.— Zaldieria seinatzeko, Ezkion erabiltzen zituzten burdinen ezaugarriak.



11.— Behorak eramaten dituzten zintzarri moetak (hauen doinua urrutira entzuten da).



12.— Malatsa. Gaztak egiterakoan, esneari «gatzagia» botatzen diogunean mamiu egiten da. Mami hori desegitzerakoan «zurezko malatsa» erabiltzen zuten.



13.— Argindegin aurkitzen den uztarria. Angel Idiakez-ek dioenez Azkoitiko uztargileak egina.



14.— Behi-askak. Hauek, berriz, zurezkoak ditugu; oholakin eta hustutako zuhaitz enborrekin eginak.



15.— Izazpiko tontorra (971 m.). Bertan nabaritzen da oraingo gurutze berria. Urtero —Iraila inguruan— meza bat ospatzen da, hil diren inguruko abeltzain-gaitik eta urtean zehar hil diren herriko seme guztiengatik.

«Pasmo-belarra»:

— belar honek zauriak garbitzeko balio zuen
— eta sendadurak egiterakoan erremedio bezala

— abereari edateko ere eman zitzaiokeen «baruak garbitzeko»

— Zauriak: zauriak garbitzeko txerri-gantza erabili dute.

— Ardoa kasu askotan ematen zitzairen. Edozein gaitxetax kutsatzerakoan ardoa edan araztea gaixotutako abereari, ona omen zen. E. b. txahala egin ondoren, behiari ardoa edan araztea ona omen da.

Zauriak garbitzeko beste sendagailu bat eza gutzen dugu une honetan. «Tirakiloia» deritzaio; udaberri inguruan belar mota ezberdinak loraldian daudenean Joxe M.^a Zendoiak sendagailu hau urtero prestatzen du. Jarraipenean, erremedioa prestatzeko behar diren belarrak eta beste kutsu batzu adieraziko ditut. Ahal dudan osagaiekin, erdaraz eta latinez dagokien derminuekin aipatuko ditut:

Osagaiak

«Malmea» (malbea): malva; MALVA SILVESTRI
«Gardu-Latxa»: cardo borriquero: CNICUS BENEDICTUS

«Pasmo-belarra»: malmearen itxura duen espezie, hoiaren artean «zaingorria» agertzen da

«Mermen-belarra»: verbena; VERBENA OFFICINALIS

«Koska-belarra»:

«Suga artoa»: (sugar-belar) garau gorriak dituen landarea

«Intxusea»: sauco; SAMBUCUS NIGRA

«Erromeroa»: romero; ROSMARINUS OFFICINALIS

«Olioia»: aceite; OLEA EUROPAEA

«Baratxurie»: ajo; ALLIUM SATIVUM

«Argizaie»: cera; CERA

«Uztaue»: (ustabelar) acedera; RUMEX ACETOSA L.

«Zaingorrie»: llantén mayor; PLANTAGO MAJOR L.

«Ebaki-belarra»: caléndula; CALENDULA OFFICINALIS

«Belar beltza»: (us-ustoa) escrofularia menor; RANUNCULUS FICARIA

«Kipulea»: cebolla; ALLIUM CEPA

«Ludo-Belarra»: azucena; LILIUM CANDIDUM

(suga-artoarengandik hostoak hartzen dira bakarrik.)

Sendagailua nola prestatu

Sendagailua, belarrak freskoak agertzen diren bitartean prestatu behar da. Belar hauetatik, gehienak udaberrian ematen dira, horrela denen bilteta maiz errazten zaigu. Bildu ondoren eraman behar den prozesua:

— Lehenbizi: belar guztiak haizkora edo labanarekin zatitu behar dira eta jarraipenean ontzi batetan sartu, bertan olio dexente jartzen dugarik. Argizari pitin bat ere nahastu behar da, denbora zati batetan su-apalean irakiten edukitzen dugun bitartean (ez ahaztu goilarearen bitartez belarrak biraka erabili behar direla). Ohartzerakoan «saldea» prest dagoela, isurki guztia iragaztontzian pasatuko dugu. Laister nabarituko dugu iragaztontzian pasatutako isurkia gogortzen hasten dela, argizariaren eragipenarengatik. Sendagailu honen ahalmena: zaurietan sortzen den zikina kanpo aldera ateratzea.

Lehen aipatu dut arantzuriaren ahalmena. Artzaien artean sinismen handia zeukan: artaldean ardiaren bat lepo-azpian koskorrearekin aurkitzen bazen (beraien ustez sugeak heldu diolako), koskorra arantzuriarekin zulatuko zuten. Ohitura hori, orain dela hamar urte, neronek ezagutu dut Ezkion era berdinean egina.

18. Ikuiluen eta ganaduen bedeinkazioa

Lehen era honetako gauzak bedeinkatu izan ohi dira: etxebizitza, ikuilua, abereak eta soroak. Bedeinkazioa herriko apaizak egiten zuen; oraindik ohitura honek tankera berdinean jarraitzen du. Lehen, normalki, Juan Donearen egunean egiten zen bedeinkazioa eta urte guztirako balioa zeukan. Ezkion, apaizak goizeko 7'tan meza eman ondoren, elizatarira ateratzen zen eta zerua hodeiez estalirik aurkitu ezker, herri osoarentzat bedeinkazioa botatzen zuen (harriak eta tximistak ez zitzaizketen kalteak egin). Ondoren, baserritik-baserrira «konjuroak» egiten joaten zen. «Konjuroa» egiterakoan lehenbizi otoitza esaten zuen, jarraipenean erramu baten laguntzarekin ontzian jasota zeukan ur-bedeinkatua botatzen zuen ikuiluan, etxebizitzaren barruan eta soroan. Horrela, baserriari dagozkion atalak, edozein gaitzetatik babestuta gelditzen ziren. Oraindik, apaizari pertsonalki deitu ezker, etxebizitzak eta ikuiluak bedeinkatzen ditu. Bedeinkazioak egiteko garai egokiena, Bazkoetatik-Bazko egunetara egitea zen. Normalki, egun hauei itxaroten zuten bedeinkazioak egiterakoan.

20. Abereak erabiltzen dituzten kutunak

Jendeak ez du ezagutu, abereak erabili duten kutun berezirik. Bakarrik pertsonak erabili zituzten «eskapularioekin» gogoratzen dira. «Eskapularioa» telazko poltsa txiki bat genuen, lepotik zintzilik jartzen zena.

Aberei, «karatxoak» atera ezker Angel Idiakez-ek esan zidan, erremedio ona zela akabatutako apo bat pote huts batetan sartzea, ondoren potea itxi eta gaitzaz kutsatuta dagoen abereari lepotik zintzilik jarri. Apoa desegintzerako «karatxo» desagertu egiten omen da.

21. Ganaduarentzat egokiera ohiturak

Ez dira ezagutzen horrelako ohiturak. Egoera hau ukitzen duen esaldi bakarra aipatu didate. Esaldi hori tratu-erosketa amaitu ondoren aipatzen zuten, eta saltzen zuten abereari honako hau esaten zioten:

«San Antoniok bedeinka dezala»...

22. Erosketa eta salmentako ohiturak

Modu honetako ohiturak, erlezantzan ezagutu dira bakarrik. Erleak ezin dira dirutan erosi, bere prezioa «anea-laborearekin» neurtzen zuten. Anega: laborea neurtzeko egurrezko ontzi bat genuen. Bere kapazitatea 55,5 litroena litzateke eta «imikina» edo iminarena: anegaren laurdena litzateke.

Angel Idiakez, gogoratzen da, nola bere jaiote-txean —Pagoaga baserrian— behi bat saldu zutenean, amak, bizkar gainean gurutzearen zeinua egin omen zion etxetik ateratzerakoan.

23. Ze txanponetan erabakitzen da abereen balioa

Hasieran, zorrak, ganadua trukean erabili ondoren, ordaintzen ziren. Baserritarra esku artean dirua hasi zenean erabiltzen, «tratuaren» orduko joerak, aldatu behar izan zituen. Eskutan dirua izateak, feritan egindako erosketa une bertan ordaintzea suposatzen zuen. Mende honen bitartean ezagutu diren txanpon motak hauexek izan dira: zentimoak, errealak (eta errealbikoak), pezeta eta duroak. Hoen artean eskutan gehienbat erabili direnak:

zentimoetan

- zentimo batekoa (kobrea) Alfontso XIII.a
- 2 zentimokoa (kobrea) Alfontso XIII.a
- 5 zentimokoa (aluminioa) Francoren garaikoa

- 10 zentimokoa (aluminioa) Francoren garaikoa (zaldiaren irudia)
- (erreal) 25 zentimokoa (kobre-nikel) Alfontso XIII.a
- (erreal) 25 zentimokoa (kobre-nikel) Francoren garaikoa. Zuloduna
- «errealbiko» 50 zentimokoa (zilarra) Alfontso XIII.a
- 50 zentimokoa (kobre-nikel) Francoren garaikoa. Zuloduna
- 50 zentimokoa (aluminioa) Francoren garaikoa. Zuloduna
- 50 zentimokoa (aluminioa) Juan Carlos I'aren garaikoa

pezetatan

- pezeta bat (zilarra) Alfontso XIII.a
- pezeta bat (kobre-eztainu) Francoren garaikoa
- pezeta bat (kobre-eztainu) Juan Carlos I'aren garaikoa
- 2 pezeta (zilarra) Alfontso XIII.a
- 2,50 pezeta (kobre-eztainu) Francoren garaikoa

durotan

- 5 pezeta (zilarra) Alfontso XIII.a
- 5 pezeta (kobre-nikel) Francoren garaikoa
- 5 pezeta (kobre-nikel) Juan Carlos I'aren garaikoa
- 25 pezeta (kobre-nikel) Francoren garaikoa
- 25 pezeta (kobre-nikel) Juan Carlos I'aren garaikoa
- 50 pezeta (kobre-nikel) Francoren garaikoa
- 50 pezeta (nikel) Francoren garaikoa
- 50 pezeta (kobre-nikel) Juan Carlos I'aren garaikoa
- 100 pezeta (zilarra) Francoren garaikoa
- 100 pezeta (kobre-nikel) Juan Carlos I'aren garaikoa
- 100 pezeta (kobre) Juan Carlos I'aren garaikoa

Biletetan ezagutu dituzten motak honako hauek dira:

- II. Errepublikako garaian, 5 peza, 10, 25, 50, 100 eta 500'eko bileteak.
- 1937-1984 urte tartean, peza batekoa, 5, 25, 50, 100, 500, 1.000 (Francoren garaikoak), eta 2.000, 5.000'ko bileteak, 1975. urtetik aurrera atera dituztenak.

Ganaduaren garrantzia, baserriko ekonomia barnean

Hasieran, laborantzak zuela garrantzi gehie-

na, aipatu dut lanaren hastapenean; baserria, berak sorarazten zuenari lotuta zegoen. Hala eta guztiz, 1930'erako egoera aldatu egiten da eta ganaduak betetzen du nekazaritzak utzitako lekua. Abelkuntzak garrantzi handia du oraindik baserri gehienetan. Halere, Ezkiotik jende gazte asko Zumarra eta Ormaiztegiko tailerretara joan da lanera. Horrela, nahasitako produkzio mota ikusten dugu:

- lantegian jasotzen dena.
- eta baserriko ekoizpenetatik ateratzen dena.

24,25. Abelkuntza hiztegia

Behiak

Jaio berria: «txaala»: arrari: «txekorra», «ixkoa» emeari: «bihantzea», «urruxea»
2 urtetik aurrera: «behie» (emea)
arrari: «zezena»
zikiratutako arra: «iria»
araldian dagoen behiari: «susa»

Behorrak

Jaio berria: «muxala»: emeari: «behokea»
arrari: «zaldie»
2 urtekin: «behorra» (emea)
arrari: «zaldie»
araldian dagoen behorriari: «iel»
zikiratutako zaldiari: «kapautako zaldie»
txikia eta iledun den behorriari: «pottoka»

Mandoak

emeari: «mulea»
arrari: «mandoa»

Astoak

asto emeari: «astamea»
asto arrari: «astarra»
jaio berria: «astakumea»
araldian dagoen asto-emeari: «iel»

Ardiak

Jaio berria: «arkumea»: emeari: «urruxe»
arrari: «aharikoa»
urte batekin: emeari: «bildotsa»
arrari: «ahari-bildotsa»
2 urtekin: «arkaztea»
3 urtekin: «ardie» (emeari)
8 urtekin: «ardi-zaharra»
araldian dagoen ardiari: «arkera»
arrari: «aharie»
kapatutako arrari: «zikiroa»

Ahuntzak

Jaio berria: «ahuntzumea»
emeari: «ahuntza»
araldian dagoen ahuntzari: «auzkera»
arrari: «akerra»

Txerriak

Jaio berria: «txerrikumea»: emeari: «ahardie»
arrari: «ordotsa»
emea: «txerrimakie»
araldian dagoen txerrimakari: «irausi»
arrari: «apoa»

Oiloak

Jaio berria: «txitea»: emeari: «oillandea»
arrari: «oillaskoa»
hazten denean: emeari: «oilloa»
arrari: «oillarra»
arraultzak eztaltzen dituen oiloari: «oilla-loka»

Untxeak

Jaio berria: «koneju-kumea»
emeari: «koneju-emea»
arrari: koneju-arra»

Erlezantza

abeja: «erlea»
abeja obrera: «langilea»
abeja zángano: «alperra» edo «erle-loka»
abeja reina: «erregina»

Katuak

Jaio berria: «katakumea»
emeari: «katamea»
arrari: «katarra»

Txakurrak

Jaio berria: «txakurkumea»
emeari: «txakur-emea»
arrari: «txakur-arra»
araldian dagoen txakur emeari: «alta»

Usoak

Jaio berria: «usokuma»
emeari: «uso-emea»
arrari: «uso-arra»

Ahateak

Jaio berria: «ahatakumea»
emeari: «ahatea»
arrari: «ahatarra»

Abere batzuei deitzeko izen berezi batzuk erabiltzen dira; hala ere ganadu denei ez zaie jaritzen izen berezirik. Behiei deitzekotan, «gorri», «pintta», eta «beltza» izenak erabiltzen dira beste batzuren artean. Ardiei batzutan, jarri ohi dizkiete hurrengo izen hauek: «muxu beltz», «txuri», «aar-txiki», «gaiztua», «xaxardi», «txepela». Txakur-
ren zerrenda, zabalagoa dugu, zeren eta txakur denei nola edo hala, izen bat ezartzen zaie bizitza osorako. Honela, aurkitzen gara mota hauetako izenekin: «lau», «txiki», «itxusi», «xoli», «pastor», «gure», «xarpa», «argi», «xol», «nere», e. a.

26. Ganaduarekin komunikatzeko erak

Joera desberdinak egon dira animaliak tratatzerakoan. Esate baterako txakurrek bere izena entzun ondoren erantzuten dute. Garrasiak, txistuak, eta keinuak ere laguntzen dute eginkizun horretarako. Lana bukatu ondoren eta gauzak ongi irtenez gero, txakurak lastan batzuk eskaintzen ditu Ongi ez badu bete jipoia ematen ohi diote.

Behiak eta idiak uztarran lotuta eraman direnean, puntan eztena zeukan akuiluarekin asintzen zitzairen. Hala ere, 1925. martxoaren 29'an Azpeitiko Gobernuko Delegazioak idi-demak, oilar-jokuak eta ahari-topaketak debekatu egin zituela baieztatu dezakegu. Baserritarrek, eztena erabiltzea ere, galerazia zegoela aipatu digute.

27. Etxeko kontsumorako gizentzen diren abereak

Baserrian, honako abere hauek gizentzen ziren: txerriak, ardi-zaharrak, arkumeak, oilo-zaharrak eta txahalak.

Gehienetan txerria hiltzen zuten, urte osoan gizentzen eduki ondoren. Beste ganadua baliotsua zen baserrirako eta beste ekoizpen batzuk lortzeko erabiltzea nahiago zuten. Bakarrik, udazkenean edo neguaren hasieran ardi-zahar bat hiltzen zen bere haragia eta odolkiak baliatzeko (artaldean baliotsua ez zen, urte hoiekin arkumeak ezin bait ditu eman).

Ondoren Arantza Aranzadik eta Angel Idiakez jaunak azalduta, txerri hilketa nola egiten zen adieraziko dut:

— Txikitatik gizentzen hasten diren txerriku-meak dira onenak gero hiltzeko. Txerrikumea negu-udaberrian eramaten da baserrira hurrengo neguan hiltzeko. Hilabete pare bat hil baino lehenago janari desberdina hasten zitzaion ematen

(janari kantidadea eta maiztasuna gehiagotu egiten da). Dena dela, normalean baserri gehienek, urtean zehar ematen zieten janariarekin jarraitzen zuten. Zehaztu digutenez honako hauek ziren:

- «Zaperoa»: era desberdinak zeuden prestatzerakoan:
 - arbi egosia eta «arto-irina» nahastuz egiten zena
 - erremolatxa egosia eta «arto-irinarekin» prestatutakoa
 - patata egosia eta «arto-irina» nahastuz ematen zietena
- Arto aleak
- Baba aleak
- Arto-zahia
- Gari-zahia
- eta baserriko hondakin guztiak.

Azkeneko bi hilabetetan dieta berbera jarraitzen zuten; baina arto aleak eta baba aleak kantidade handiagotan eskaintzen zitzairen. Hori bai, ez dugu aiantzi behar, txerria hil aurreko egunean ez ziotela ematen inolako janari mota, bihar-munean erraiak kendu ondoren, hesteak garbitzerakoan lehertu ez zezaten.

«Txerri-janak» nola prestatzen ziren

Lehen aipatu dudan bezala —arbia, erremolatxa eta patata— lapiko batetan («txerri-ontzia» deiturikoa) egosten ziren eta ondoren artoirina nahasten zitzairen. Nahasketa honi «zaperoa» deitu izan diote, «zaperoa» edo «orea».

Beste janari moetak «artalea», «babalea», «zaia» edo «garagarra» deitzen ziren. Garagarra gutxi ematen zitzairen, baserriko ekonomiarentzat garestia ateratzen bait zen. Txerri-jana hauek prestatzerakoan normalki erabiltzen ziren tresnak: «txerri-ontzia» (edo lapikoa), «txerri-baldea» eta lapikoan dagoen janaria eragiteko behar zuten «makila».

(Ikus hurrengo horrian, aska moeta ezberdinen marrazkiak: «txerriaska» eta behiei pentsua emateko erabiltzen den aska.)

Txerria gordeta edukitzen zuten lekuari «txerri-tokia» deitzen zioten.

Txerri hilketa noiz egiten den

Txerria neguko hilabetetan hil behar da (abendutik otsailerako bitartean), une horretarako egun hotzak aukeratzen direlarik. Hilketa, hilberan egin


behar da beti —lehengo zaharrak jarrera honi asko begiratzen omen zioten—. Zergatia, urdaiaz-pikoak hobeki ondutzen direlakoan aurkitu deza-kegu. Txerria goizetik hiltzea hobe da. Neguan sartuta zeudenez, argi gutxiago zeukaten txerri hilketak ematen zituen lan guztiak amaitzeko; horregatik aukeratzen zuten txerria goizetik hiltzea, lan gehienak eguargiz amaitzekotan.

Txerria hiltzeko, hauzoko gizon bat izaten zen normalean. Ezkion Etxaluze baserriko Inazio zegoen eta baita Patxi Ildiakes ere. Hala ere 1925.go urtarrilaren 25'eko aktetan, herri honetako albai-tari titularraren kexa bat jasotzen da. Berak dioenez, herriko baserri batzutan txerriak hiltzen dira, 1923.go abenduaren 30'ko Agindu Errealari jaramonik egin gabe. (Ikus 1925.go urtarrilaren 25'ko aktak 55. horriaren atzekaldean).


Aipatu bizi-lagunen ondoren, matarifea ibili ohi dela txerriaren hilketan. Txerri hiltzaileari, baserri bertako jendeak laguntzen zion hilketa aldian.

Hilketaren deskribapena

Txerrikitik atera ondoren, txerriari okotza-ren azpitik gakomakoa sartzen dio txerri hiltzaileak. Ondoren, inguruko jendeak txerria eusten du eta une horretarako prestatuta dagoen mahai batetan etzanda ipintzen dute. Mahai horrek 60-70 zm. ditu altueran eta 2 m. luzeeran. Segidan lepoa mozteko aiztoarekin lepo barrenetik bihoztzeraino zulatzen dute eta jarioan hasten den odola lapiko batetan jasotzen dute; odola eroritzen ari den bitartean eskuarekin eragin behar zaio, bestela gogortuko litzateke. Prozesu osoak 2 minutu irauten du.



Behiaska.



Txerriaska.

Orain arte txerria hiltzeko erabili diren tresnak hauexek dira: «gakomakoa», txerriaren lepoa mozteko aiztoa, eta txerria etzanda ipintzeko mahaia.

Txerria hil ondoren egiten diren ekintzak

Lehenbizi, eginkizun honetarako prestatzen den garo-meta batetan, txerria kokatzen da (honetarako lastoa ere erabili izan ohi dute) eta ondoren garoari sua ematen zaio. Azaleko zurdeak ongi erre daitezten, sutan dagoen bitartean txerriari jirakadak ematen dizkiote, eta «lastozuzia-ekin» lepape eta besapeko zurde izkutuenak erretzen dituzte. Eginkizun hori amaitu ondoren txerriaren azala garbitu beharra dago. Horretarako teila pusketa batetaz baliatzen ziren eta honekin kiskaldutako azala eta zurdeak marruskatzen zituzten. Azala harraskatu ondoren txerriari gelditzen zaizkion zikinkeriak urarekin garbitzen dira. Gaur egun, txerri hiltzaileak langintza honetarako paleta batetaz eta uraz baliatzen dira. Azala garbitu eta gero, txerria mahai batetara igotzen da (ondorengo lanak egiterakoan oztoporik ez izatearren) eta aiztoarekin okotzetik ipurdiraino ebakitzen da. Sabela ireki ta gero tri-pabarruak atera daitezke:

- lehenbizi gantza kenduko diote
- ondoren gibela, bihotza eta birikak kentzen zaizkio
- eta azkenik beste lapiko batetara urdaila eta hesteak jasotzen dira.

Errai guztiak kendu ondoren, txerriaren barruak urarekin edo zapi batekin garbituko dituzte. Garbiketa bukatzen denean, zutoin batetan

txerria eskegita ezartzen da. Zutoin honek puntan kakoa behar du, txerriari okotza bertatik eutsi dakion.

Eginkizun honekin, hilketaren ekintza gehienak, egun horretan amaitzen dira; zeren hurrengo egunera arte txerria hozten laga behar da, biharamunean haragiaren zatiketa erraztu dedin.

Odolkiak nola egiten diren

Hildako txerriaren hesteetaz baliatzen dira odolkiak egiterakoan. Hauek ura eta ozpinarekin ongi garbitu ondoren prest daude erabiltzeko. Odolkiak normalki, lehengai hauetaz osaturik doaz (hala ere edozein sukaldariak hemen aipatutako zerrendatik espezia moeta baten bat atzera botako luke, probetxugarriagoa den moeta bat ipintzearren. Neronek lortu dudana errezeta hauxe izan da [Arantza Aranzadik emana 1985.go irailan]:

- ortuariak: kipula (porrua baina gehiago)
- porrua
- txerriaren odola
- txerriaren gantza
- oreganoa
- pipermina eta anis ale batzuk
- eta olio errea.

Txerriaren haragiarekin egiten diren hestekiak

Gehienbat txorizoak eta lukainkak egiten dira. Txorizoak prestatzerakoan urdaia, giharrea eta piper-hautsa (mingarria eta gozoa) behar dira. Lukainkak prestatzerakoan urdaia, giharrea eta txerriaren azalarekin.

Txorizoak egiteko, txerriaren zatikiak ontzi batetan jartzen dira. Ondoren baratxuri dexente zuritzen da, pusketa txikian ebaki eta segidan horretarako prestatuta dauden hiru edo lau oihaletan bildu ondoren txerri zati horien artean lagatzen dira. Prozesu honi «salmueran jartzea» deitzen diote. Haragi pusketa horiek «salmueran» eduki ondoren, piper hautsak nahasten zaizkie eta hurrengo urratsa txorizoak egitea izango da.

— Gantza lauskitzerakoan, bertan gelditzen zen hondarrari «gantziarra» deitzen zioten. Gantz hondar horiekin gailetak egiten zituzten. Goxoki horiek prestatzeko prozesu honi jarraitzen zaio:

«gantziarra berotzen zen, gero dena zehetu eta irina eta arraultzak nahasten zitzaizkion; azkenik gailetan itxura eman ondoren labeaz sartzen ziren hogeit minutu edo ordu-erdian edukitzen zizteltarik».

Goxoki hauek «txerri-gaileta» izenarekin eza-gutu omen dira.

Orain arte, txerriarengandik jaso ditugun produktua hauek dira:

- odolkiak
- txorizoak
- lukainka
- «txerri-gailetak» edo «gantziarra»

Nola gordetzen diren haragi zatiak eta hestekiak

Odolkiak: freskuran egon behar dute, hobe sukaldetik urrun kokatzen badira.

Txorizoak: haizea dagoen lekua behar dute, adibidez ganbara leku aproposa izan daiteke. Txorizoak gustu berezia eta ona hartzen dute kea agertzen den leku batetan egonez gero (errekina pago egurra bailitzen hobe, baina egur hezea behar du). Odolkiak berriz ez dute kerik behar.

Haragi pusketa gehienak gatzetan jartzen dira. Urdaiazpikoak prestatzeko modu interesgarria aipatu didate: baratxuri aleak ura asepeletan eduki ondoren, urdaiazpikoak berariekin igurtzitzen dira, baratxuriaren gustua har dezaten.

Txerriarengandik aprobetxatzen diren zatiei izen hauek ematen zaizkie:

- «Urdaiazpikoa»
- «Solomoa»: «solomo handia» eta «solomo txikia»
- «Txerri-belarrik»
- «Ankak»
- «Hezurak»
- Hirugiharrea»
- «Giharrea»
- eta «Urdaia».

Txerri hilketaren eguneko ospakizuna

Egun hori berezia izaten zen hildako txerriaren baserriarentzat. Normalean, txerriaren gibelak prestatzen zuten eguerdiko bazkarian. Egun, baserri batzutan txerria hiltzen jarraitzen dute, baina lehengo ohitura batzu alde batetara utziaz.

Txerri hilketa hori ospatzerakoan, bai baserrikoak, zein txerria hil duena eta eginkizun horretan lagundu dutenak bazkarira gelditzen ziren. Une horretan prestatutako bazkaria hau izan zitekeen:

- lehenbizi: babarrunak
- ondoren: txerri-gibela
- eta bazkalburuan: sagar erreak eta gazta.

Ohitura zen, baieztatu didatenez, aurreko ordainetan txerri-odolkia oparitzea eta inoiz ere odolkiekin batera, solomo pusketa bat, txerri hezurak eta urdai zati batzuk bidaltzen ziren. Generalki hauzoko jendeari egiten zitzaion opari hori, beraiek jarrera berdina izan ondoren inguruko bizilagunekin. Opari honi «txerri odolkik ordainetan» deitzen zioten.

Lana ez luzatzearen ez dut jaso beste edozein animalia moeta hiltzeko era. Eginkizun hori, beste une egokiago batetarako laga dut.

28,29,30,31. Erlezantza

Ezkioko herrian erleak hazten dira. Hala ere inguruan agertzen diren erlauntzak ez dira ugarriak. Iburguren-en aipaturiko idazlanean, 44n, horri aldean adierazten zaigu urte muga haietan erlauntzak ez duela ia garrantzirik Ezkioko herrian. Baserri gehienetan haritza edo gaztainondoen enbor hustuekin egindako erlauntzak agertzen ziren, edo eta gereziendoaren oholarekin egindako erlauntza laukidunak. Garai hoietarako agertuak zeuden ere, une honetan erabili ohi diren erlauntza moeta berdintsu: Layens erakoak, Dadant erakoak. Erlauntzak beste era batetara aurkitu litezke: hegoaldeetik irekita zegoen estalpe baten azpian pilaturik zeudenean, honi «erletegia» deitzen zioten. Horrela aurkitzen ziren Arantzeaga, Arane eta Zalete baserrian. Gaur egun erlezantzari dedikatzen diren pertsonak gutxi ditugu Ezkioko herrian: eginkizun honetan ezagunenetakoa Joxe M.^a Zendoia Kerejeta dugu. Herriko semea ez izan arren (Aratz-erreka hauzoan, Basajaundegi baserrian jaioa da —Azpeitiko udalbarrutian—), emaztea bertakoa du (Agerregoiko baserrian jaioa). Horregatik Ezkioko herriarekin aspaldi izan ditu harremanak.

Inguruko udalbarruti batzutan beste erlauntza batzuk eduki arren, jarraian Ezkion explatatzen dituenak aipatuko ditut. Guztira 15 erlauntza ditu Ezkion jarriak; hauetatik zazpi, erlez beterik daude (Lopetegin, Erretore etxean, Santa-Marinan, Ezpeletanean, Olazabarrenean, Ojarten, eta Azkartzan —denetan erlauntza bana—) eta beste 8'ak hutsik (Lopetegin, Erretore etxean, «Anbu-ko» baserriaren zelai barrenean, Ezpeletanean, Olazabarrenean, Ojarten, Zaleten eta Zela baserrian —hauetan ere banaka—).

Udalbarrutian agertzen diren beste erlauntzak honela daude kokaturik: Etxaluze baserrian 2 erlauntza daude, eta berauek Zela baserrian, beste bat dute; «Erretore etxean» J. M. Busca Isusik

beste bat dauka. Erlauntza hauen ardura ezta ta ondorengoak jasotzea Joxe M.^a Zendoiak eramaten du.

Hala eta guztiz, ez dugu bera Ezkioko «erle-maisu» bakarra, zeren «Izar-gain» eta «Zelaeta» baserrietan ere, erleak zaintzen dituzte. «Zelaetan» 3 edo 4 erlauntza agertzen dira eta «Izar-gain» baserri inguruan beste 12 erlauntza agertzen dira. Gainera, baserri honetakoek erleak urrutira larrez aldatzera eramaten dituztenak, eza-gutu diren lehenengoak ditugu Ezkion.

S. Iburguren-ek 1927'an aipatzen zigunetik gauzak zerbait aldatu dira. Une hartan egoera larria bazen, oraingoa ez da lasaia. Garai haietan baserri gehienak erlauntza bana eduki bazuten ere (era zaharreko erlauntza moeta), egun, erle zaletasun hori 3 edo 4 pertsonengan bakarrik kokaturik dago. Zerk eraman gaitu gaurko egoerara?

Arazoak, bat baina gehiago dira; horien artean lehenengoa: eguraldia azken urtetan «zortuta» agertzen dela eta egoera honek ez du ezer errazten landareak loratzerakoan. Gainera, eurien erleak ez du lanik egiten, erlauntzetik ez delako ateratzen; eta azkeneko urte hauetan udaberriak nahiko kaxkarrak izan ditugu (hotzak eta egun euritsuak ugari izan dira eta), erleek horrela nektarea eta polena loreengandik jasotzeko posibilitatea galtzen dutelarik.

Beste arazo bat, pinuaren (PINUS INSIGNIS) ugaritasuna dugu. Hasierako lerroetan, 1930. urtetik aurrera Ezkioko herrian pinuak harrakasta handia hartzen duela aipatu dut. Egoera hori kaltegarria bihurtzen da, zeren pinuaren aurrerapenarekin beste zuhaitz moeta batzuk desagertzen joango dira, edo ez desagertu arren aspaldidanik sustraiak botata zeuzkaten zuhaitzak bakantzen hasiko dira. Honela badakigu erleak atsegina zuen txilarra, Ezkioko herritik bakandu egiten dela eta zenbait pagadi, harizti eta zumardi urritzen dihoaztela. Hala eta guztiz ere, erlezantza pitin bat kontutan hartuez gero Ezkioko udalbarrutian, erlearentzat atseginak diren gaztainadi batzuk agertzen dira (Astiarbe deituriko lursailetan).

Mende honen hasieran sagasti asko ez agertu arren, gerora indarra hartzen joan zen eta une honetan Arane, Pagoaga, Barrene eta Aranburu baserrietan agertzen dira sagarrondo batzuk. Zuhaitz hauetatik aparte ezkia, lizarra, gereziandoa, madariondoa eta urritzak ere agertzen dira. Baina, aurreko lerrotan aipatu dudanez erleak ez du

aurkitzen bere eguneroko jakia behar duen neurrian.

Erlauntzaren itxura

Egun, erlauntza moeta ezagunenak: Layens, Langstroth eta Dadant ditugu. Gehien banatu den erlauntza moeta Dadant izenekoa izan da. Hauek ez dira dendatan erosten, baizik eta ohitura zahar bati jarraituz, erle-maisu berak prestatzen ditu. Joxe M.^a Zendoiak dituen erlauntzak, berak prestatutakoak dira. Halere, Joxe M.^a Busca Isusik duen erlauntza, Layens moetakoa, Bartzelonako hiritik ekarria da.

Erlauntzaren irteera («txispirue»), hegoaldera begira jartzen da, hau da, eguzkiak erlauntzaren sarrera luzaro berotu dezaken aldera. Baita ere, erlauntzak kokatzen diren lekuan, larre ugari eta ura egon dadila kontutan eduki behar da.

Erlakumeak jasotzeko erak

Joxe M.^a Zendoiak baieztatu zidanenez 3 sistema ezagutu ditu:

— Erlakumea adar batetan geldituz gero, zaku batetara sartu daiteke. Zakuaren muturrean bi makila eransten dira, zakuaren ahoa irekita egon dadin. Adarra astindu ondoren, erlakumea zakua-
ren barnean eroriko da.

— Bereganatu litezke, aproposalako kaxa bat dela medio. Kaxa honek, laukiaren itxura du —erlauntzarena— eta Joxe M.^a Zendoiak dioenez era honek ondorio hobeagoak ematen ditu, zeren erlea bere kasa poliki sartzen joango da.

— Aipatu zidan beste sistema, honetan datza: erlakumea hegaldian doanean lur-hautsa edo ura botatzea. Une berean gelditzen omen dira erleak, makalkeriaren ondorioz.

— Kontatzen zidan ere, erlakumearen aurrean ispilua jarri ezkerreko emaitza onak lortzen zirela, berak metodo hau sekula ez erabili arren. Erlauntza munduan beste arazo bat agertzen da. Erle-maisuak nola adierazi dezake erlakume baten nagusitza?

Joxe M.^a Zendoia-rekin elkarrizketa jarraituz, baieztatzen dit, berak sistema hau ez duela sekulan erabili, baina hala eta guztiz ikusi omen ditu gurutzeak zenbait zuhaitzetan marraztuta, zuhaitz haietan aurkitzen ziren erleen nagusitza adieraziz. Erleekin ibiltzen zirenek, ohitura zuten, zuhaitz batetan agertzen zen erlakumearen nagusitza adieraztea (lehena izanez gero aurkipean gurutzea marrazten zuten).

Eztia nola jasotzen da

Ezkio ingurunean aurkitzen den erlea «Apis Mellifica nigra» deituriko arrazakoa da. Dermi-
nuak adierazi zezakeen arraza hau beltza dela. baina ez da horrela; gorputza beltza du, urre kolorezko 4 uztailez inguratutik. Hemengo giroari ohitura dagoenez, hotza nahiko ongi jasaten du. Langile ona dugu, baina erakusten ditu banakako akatsak: berarekiko harremanak une batzutan zalak bihurtzen dira.

Erleei eztia kentzerakoan, «erle-maisuak» tresna batzuk erabiliko ditu, eztia biltzearen lana erraza izan dadin.

Erlazainaren tresnak:

«Buruko-sarea» (burua estaltzeko), «erle-kutxilua» (aberaskak ebakitzeko), «rasketa», «esku-bila» eta «hauspoa» (trapu zahar batzuen bidez kea egiteko, honela erleak otzandu egingo dira —kea egiteko mahoizko ehuna izango dugu ho-
berena—).

«A» argazkia.



J. M.^a Zendoia bere erlategian behaketa egin ondoren.
Arg. Gontzal Avila.

«B» argazkia.



Prozesua

Erlazainak, lehenbizi, erlauntzaren sarreratik («txispiriue») kea botako du hauspoaren laguntzaz —horrela, erleak urduri jartzen dira—. Ondoren, erlauntzaren tapa altxatzen da eta hauspoarekin berriro kea bidaltzen zaie (ikusi B argazkia). Une honetan, erleak zeharo bildurturik, aberaskatan daukaten eztia jaten hasiko dira, eraso gogorra jasango dutelakoan. Gogoratu behar dugu, erleak, ezin duela eztena erabili trebetasun berdinarekin sabela bete eztiz.

Lankizun guzti hauek egiten diren bitartean, erlazainak hitz gutxi egiten ditu. Erlearentzat isiltasuna eta apaltasuna «sendagai» onenak omen dira.

Denbora pitin bat igaro ondoren, hasi daiteke eztia ateratzen. Horretarako aberaskak banandu beharko ditugu rasketarekin (erleak propoleoarekin eransten dituelako), (ikusi D argazkia). Aberaska alderatu ondoren kanpora ateratzen du eta labanarekin, eztiari dagokion koadro osoa moztzen du (ikusi E argazkia). Ondoren eztiaren

koadroa (aberaska) zaku batetara jasotzen da —plastikozkoa izanez gero hobe.

Bildutako eztia etxera eraman ondoren, hurrengo betebeharra ezti hori, erleek egindako gelatxoetatik ateratzea litzateke. Horretarako 2 sistema jarraitu dira:

- argizaria eta eztia eskuz hestutzea batera.
- makinaren bidez (ezti erauztailuaren bidez).

Orandik lehenengo sistimarekin jarraitzen da leku batzutan. Aberaska hestutu ondoren argizari pusketak gelditzen zaizkigu. Argizari garbia lortu nahi badugu, prozesu hau jarraitu beharko da:

Argizari pusketak aproposoko ontzi batetara bota ondoren, sutan jarri dehar dira, era horretan bigundu daitezen. Nabaritzen dugunean argizaria urtu dela, sutatik atera ondoren, isurki guztia egokia den kazola batetara iragaziko dugu. 5 minututara argizaria gogortuta egongo da eta oraingoan, argizariak, isuri dugun kazolaren eitea hartuko du. (Begiratu 42. diapositiba).

«D» argazkia.



«E» argazkia.



Arg. Gontzal Avila.

32. Abeltzainak eta artzaiak

Egun, Ezkioko udalbarrutian ez dago inor abeltzantza moeta batetaz bakarrik arduratzen denik. Garai batetan, Angel Aranzadi, artzantzaz arduratzen zen. Baina hura hil ondoren (1980. urtean) ez dago artzantzaz edo abeltzantzaz soilik arduratzen den familiarik.

Ezkioko ingurunean, baserritarrek abeltzantzaz arduratu arren (baserri gehienek abelburu moeta batetara saiitzen dira) egoera horri, nekazaritzarekin batera ekiten diote. Hala ere, badaude baserri batzuk abelburu batzutat gehiago arduratzen direnak: e. b. Urruti baserriak frisona arrazadun esne behia (holandarra) hazten du; Agerregoiko baserrian Joxe Antonio Aranzadik 20 bat behi haragitarako hazten ditu (hioen artean «asturiano» arrazaduna, «limousina» e. a. agertzen dira). Goetxe baserrian «dinamarka» arrazakoak ere badiutze.

Artzantzaz saiitzen direnak azken garaietan (Angel Aranzadi aipatu ondoren) baserri hauexek

ditugu. Mendizabal baserria (artaldea larrez aldatzen zuten —neguan Ezkioko bailaratan eta udan Aitzgorriko larretan—). Berroeta baserriak artalde bapoa dauka. Garaion azpikoek ere artaldea izan dute, une honetan kenduta eduki arren. Argindegiko Angel Idiakez-ek ere 15 bat ardi badi-tu. Endaiena baserrian (Santa Lutzi hauzoan) beste 25 bat ardi agertzen dira.

Hau dena kontutan izanik, S. Iburgurenen aipaturiko idazlanean 44. horri aldean baieztatzen digunaz jabetu behar dugu: «mende honen hasieran baserri gehienek 50 bat ardi zituzten (batzuk gehiago) ... eta jarraitzen du ... egun, Garaion azpikuak eta Agerrezabalek 80'tik-100'era arte osaturiko artaldeak dituzte; eta Agerregoiko, Osinalde goiko, Berroeta eta beste baten bat 40 ardi osaturiko artaldekin agertzen dira».



Argazki honetan Angel Aranzadi —Ezkioko artzaia— agertzen zaigu.

Bere alboan agertzen den «Xol» deituriko zakurrarekin ondorengo lehiaketa hauexen irabazle izan zen:

— 1971, 1972, 1973, 1974. urtetan Gipuzkoako Ardi zakur Txapelketak.

— Eta Castellar de N'Hug-eko XI. Ardi zakur Txapelketa Nazionala eta V. Txapelketa Internazionala.

Atzerapen hori eman zedin, eragin handia eduki zuen garai hartan egin ziren pinu landaketak eta eremu partikularren hesiketak.

Argi eta garbi ikusten da, egun, Ezkioko udalbarrutian famili gutxiago agertzen dela artzantzaz arduratzen denik.

33,34,35. Mendiko abeletxeak eta gortak

Aipatu dut 7. ikuspuntuan, Ezkioko udalbarrutian agertu izan diren bordak. Herri honetako zelai altuenak Izazpiko mendian azaltzen dira, 971 metrotara. Goragune hauetan ezagutu dira artzaien bordak (zehazki 2 borda Elortxuko magalean, 707 metrotara). (Begiratu 22. horri aldean agertzen diren planoak). Bertan ikerketa batzuk egiten egon gara, baina ez da posible izan —aurkitzen diren egoeragatik— borda hauen barruko egitura nolakoa zen aztertzea.

Egun, Izazpiko larretara ardiak, ahariak, ahuntzak, behorrak eta zaldiak bidaltzen dira. Aipaturiko borda hauek, artzaiak ez dituzte erabiltzen. Baieztatu didatenez, kanpoko artzaiak ere Ezkiora etortzen ziren berriz. Hauek, uda garaian Aitzgorriko larretan ibili ondoren, Ezkiora etortzen ziren neguan beheko larreak erabiltzearen. Arane, Urruti eta Igarzabal txiki baserrietara, bere familiarekin etortzen ziren artzaiak genituen.

36. Ardi arrazak

Hasieran aipatu dut, «latxa» arrazaduna dela nagusi, bere aldaera guztietan. Horrela ikusi ditugu:

- latxa muxu-beltza
- latxa muxu-gorri
- latxa muxu-zuri
- latxa muxu-pintta

«Latxa», mendi-goiko larretan arazorik gabe erabili daiteke; bere izaera, hemen ematen diren giro gogorrentzako ohiturik dago eta. Urtaroaren epeekin artaldeak larrez aldatzen joango dira: udan goiko larretan edukiko dituzte eta neguan beheko bailarataraino ekarriko dira. Ardientzat mendi goiko larreak omen dira «finenak», A. Idiakez-ek baieztatu zigunez.

37. Goi-larretako nagusitasuna

Ezkion dauden eremu gehienak propietate partikularrak ditugu. Izazpi inguruan agertzen diren lurak ere partikularrak ditugu. Hauen nagusitasuna adierazteko, gaur egun, eskriturak seina-

tzen dira hauzitegian. Ezkiori Azpeitiko hauzitegia dagokio bere arazoak konpondu ahal izateko.

Izazpiko eremuak, hiru herri artean daude banaturik: Azpeiti, Ezkio eta Zumarraga (ikus 20. horri aldean agertzen den planoak). Ezkioko alderdian Plazategi, Agerregoiko, Arantzadi-txiki eta Garaion baserrien eremuak agertzen dira.

Elortxu deituriko tontorrari dagokionez, XIXn. mendean Ezkioko baserri batzuen artean lurbanaketa egin zutela dio Joxe A. Aranzadik. Orain planteatzen dudan arazoa honetan datza: gaur egun, leku berebete agertzen diren mugak XIXn. mendean egindako banaketari dagozkio?

Egun, goiko-larretan eremu partikularrak dituztenak, kontribuzioak edo zergak ordaintzen dituzte larre hoi erabilpenagatik. Halaz eta guztiz ere, zergak ordaintzen ez dituztenak abereak bidaltzen dituzte ere larre hoietara.

38. Lurra eta zelaien banaketa

Gai hau aztertzeke, begiratu 5n. ikuspuntuan aipatu den guztia.

39,40. «Txabolak» eta «bordak»

Ezkioko udalbarrutian, gaur egun zutik dauden txabolak harriarekin eta teilaz estalirik daude. Txabolak harriarekin eraikitzen ari zirenean, buztinaz eransten zituzten. Une honetan, «Lizarreta» deituriko eremuan agertzen den elkarte, porlanezko blokeekin eraikitakoa dugu. Beste «txabola» eta «borda» guztiak abereen babeserako erabili izan ohi dira.

Teilatua eraikitzerakoan, egurra erabiltzen zuten, teilak sostengatu zitezen. Halere, baieztatu didatenez, teila erabili aurretik, artzaiak, lurretik ateratako zotalarekin estaltzen zuen teilatua. Berrimaileek esan digutenez, txabola hauen inguruan ez dute sekula eraiki inolako borda, oilategi edo txerrikirik. Ikuspuntu hau gehiago azertu nahi izanez gero begiratu 7n. galdera.

Ezagutu dira ardientzat beste estalpe moeta batzuk, baserri inguruan eraiki zitezkenak. Azertu duguna Agerregoiko baserri inguruan aurkitzen da eta Ezkion era horretakoa gelditzen den bakarra dugu. 2 solairu ezberdinez osatua dago eta «artegia» deituko diote. Lehenengo solairua, neguan ardiak babesteko erabiliko dute. Eginkizun hori ongi bete dadin lehenengo solairuan askak eta «artxarak» jarriak daude, ardiek bertatik belarra eta pentsuak jan ditzaten. Bigarren solairua

belarra, garoa eta lastoa gordetzeko erabiltzen zuten. (Begiratu Agerregoiko «artegiaren» segidan doazen planoak).

Ezkion agertzen diren «txabolak» honako izen hauekin ezagutu dira:

- Mendietxe: «Irutxaboleta», «Auzkioko txabola», «Txantxoko txabola» e. a.
- Atzurzagan: «Agerrezabal txabola», «Lizarrretako txabola», «Atxurtxako txabola» edo «Lopetegi txabola».

41. Artzai-txabolaren erabilera

Baserri batek goiko larretan artaldeak erabili beharrean aurkitzen bazen, «txabola» eraikiko zuen. Artzai bakoitzak berea zeukan. «Txabola» hauei, eraikitzen zuten baserriko izenarekin deitzen zitzairen. Aurreko galderan ikusi ditugu hoieta izen batzuk, e. b. «Auzkioko txabola», «Txantxoko txabola», «Agerrezabalgoko txabola».

Txabolaren propietatea sekula ez zen galtzen. Oraindik, gehienek inolako zereginik ez betetzearren, bere aspaldiko nagusien izenekin gogoratzen zaie.

42. Artzai ibiltariak




Ezkioko udalbarrutian moeta hauetako artzai-ibiltariak egon dira. Baserri batzuk, zeukaten artaldeak handia zanez, ardiak urtean zehar larretan aldatzen zituzten. Esate baterako «Mendizabal» baserrikoek orain dela gutxira arte horrelako ibilaldiak egiten zituen: neguan, artaldeak, Ezkioko larretan erabili ondoren, udan Aitzgorriko larretara eramango zuten.

Ezkioko larretaz aprobetxatzen ziren kanpotik etorritako artzaiak ere. Badakigu Zegamako artzaiak (G. Aizpeolea) egoten zela Igarzabal-txiki baserriaren negu garaian, udan Aitzgorriko larretan igarotzen zuten bitartean. 55n. galderan, artzai hauek bere artaldekin erabili izan dituzten bideak, marrazkiaren bidez adierazita daude:

Artaldeekin Ezkioko lurretara iristen zirenean, ez zeukaten txabolarik egin beharra, negua bertan igarotzeko. Herriko baserri batzutan igarotzen zuten negu guztia, e. b. Arane, Urruti edo Igarzabal-txiki baserrietan.

43. Larren arautegiak

Herriko Artxiboan ez dut aurkitu oraindik, udalbarrutiko larretaz prestatutako arautegirik.



44. Artzaiak ze baldintzetan egiten dute lana

Ezkion ezagutu denez, artzai bakoitza bere artaldearen nagusia zen. Kanpotik etortzen ziren artaldeak bere nagusiak ekartzen zituen, seme baten laguntzarekin. Artaldeak batera eramaten zituen lanak eta ardurak nagusi berak burutzen zituen, aldi batzutan herriko mutil batek laguntzen ziolarik.

45. Larreen bedekazioa

18n. galderan adierazi dut, apaizak, etxebizitza, ikuiluak eta soroak bedekatzeko zituela Bazko egunetan. Ez da posible izan zehazki baieztatzea, herriko larreak bedekatzeko ziren edo ez. Gaur egun behintzat, horrelako ohiturarik ez da jarraitzen.

46. Jaungoikoari egiten zaion abereen eskaintza

Ohitura hau ezagutu dute, baina abereak ez zitzaion Jaungoikoari eskaintzen, baizik eta inguruko Ama-Birjinari; e. b. Agerregoiko baserrian bizi izandako Lorenza Urkiola Agirrek, Kizkitzako Ama-Birjinari oilaskoak oparitzen omen zizkion, beste abere moeta batzuk Lierniko Ama-Birjinari eskaintzen zizkion bitartean.

47. Artzai zakurrak

Artzai-zakur arraza garbia ez da ezagutu. Gehienbat, gurutzatutakoak agertzen dira. Halare, ondorio onak eman dituzte zakur moeta hauek, aspaldidanik ezagutzen direlarik.

Baiezatu dezakegu «mastin» arrazadun zakurra, Ezkioko udalbarrutian agertzen zela. 1924.go ekainaren 22'ko aktak aipatzen digu J. Santos Aramburu Garin-ek zeukan «mastin» arrazako zakurrak, hidrofobia arrapatu ondoren, nagusi berari horzka egin omen zion. Egun, «mastin» arrazadun dagoen zakur bakarra Aramburu baserrian agertzen da (bere eginkizuna etxea gordetzea da).

Puntu honetara iritzi ondoren ez dugu ahantzi behar urtero Ezkion ospatzen den Gipuzkoako ardi zakur Txapelketa. Urtero, irailaren lehenengo astean, Gipuzkoatik etorritako artzai taldeak, Ezkioko «Santa Marina» deituriko zelai barrenean, bere zakurrak lehiaketan jartzen dituzte, ia norgehiago den erabakitzeke. Horretarako froga desberdinak jartzen dizkiete.

— Lehenbizikoan, zakurra epaimahiak aurre-

tik erabakitako bide batetatik joan beharko du. Bide hori banderatxo batzuen bitartez, bi alboetan seinalaturik agertzen da. Epaimahiak 3 minutu ematen dizkio artzaiari froga hori ongi amaitzeko. Zakurra, bere ibilbidea egiten ari den bitartean (banderatxoak seinalatzen duten bide horretatik atera gabe) zaunka eta inguruan agertzen diren ardiei horzka ez badie egiten, hobeki izaten da bere puntuaziorako. Hurrengo frogara, saio honetan gelditu diren lehenbiziko 6 zakur onenak pasatuko dira.

— Bigarrenean: artzaiak, bi hesiren tartetik, ardiak eramatea lortu behar du zakurraren laguntasunarekin. Saio hau ongi amaitzeko 6 minutu ditu. Talde hau osatzen duten 6 zakurretatik, azkeneko frogara hiru bakarrik pasatuko dira.

— Hirugarrenean: azkeneko froga honetan, artzaiak, artaldea heskorta batetara sartu behar du. Zakurrak, ardi guztiak bertan sartu dituenean heskorta barrutik artaldea ateratzea lortu behar du. Artzaiari hori dena amaitzeko 7 minutu ematen dizkiote. (Ikus 8. diapositiba.)

Froga guztietan ateratako puntuazioa zenbatu ondoren, garailea ateratzen zaigu. Honek bere saria jasoko du. Halere, txapelketa hauetan beste sari batzuk ere banatzen dira; e. b. artzai-zakurren artean, arrazadun hoberenari saria ematen zaio, baita ere artzai-jantzi nabarmenekin dihoan artzaiari.

Jarraipenean, Gipuzkoako ardi zakur txapelketaren, ospatu diren 17 lehiaketetako garaileak aipatuko ditut.

	Urtea	Zakurra	Nagusia	Herria	Non ospatua
I	1968	LAU	Urzelai	OÑATI	Hernanin
II	1970	RUBI	Abarrategi	EIBAR	»
III	1971	XOL	A. Aranzadi	EZKIOGA	Ezkion
IV	1972	»	»	»	»
V	1973	»	»	»	»
VI	1974	»	»	»	»
VII	1975	XARBO	Etxenagusia	ERPEXIL	»
VII	1976	TXUTI	Osinalde	AZKOITI	»
IX	1977	PASTOR	Etxeberría	MATXINBENTA	»
X	1978	NAVARRO	Oiarzabal	ERNIALDE	»
XI	1979	LISTA	Osinalde	AZKOITI	»
XII	1980	PASTOR	Arrillaga	EIBAR	»
XIII	1981	ITXUSI	Oiarzabal	ERNIALDE	»
XIV	1982	LISTA	Osinalde	AZKOITI	»
XV	1983	XOLI	Plazaola	ARRASATE	»
XVI	1984	PASTOR	Arrillaga	EIBAR	»
XVII	1985	GURE	J. M. Plazaola	ARRASATE	»

Argazki honetan, Ezkioko Angel Aranzadi eta Eibarko Arrillaga eta Atxa artzaiak agertzen zaizkigu, 1975. urtean Ezkion ospatutako ardi zakur txapelketan.



Txapelketa honetan ateratzen den irabazleak, Bizkaian ospatzen den Euskalerriko ardi zakur txapelketara joateko posibilitatea dauka —baita ere bigarrenak—. Txapelketa honez gainera, garaileak, Oinatin ospatzen den Nazio arteko Lehiaketara joateko aukera du.

48. Artzaiaren jazkiak

Gaur egun, artzaiak ez dute jazki berezirik erabiltzen. Normalean, egun modan dauden jazkiekin ibiliko dira. Halere, orain dela urte batzuk, ikusten zen Ezkioko artzaiaren bati galtzerdiak josten ardi-ilea kardatu ondoren (e. b. Santiago Urbizu lanaldi hauetan aritzen zen).

Garai batetan, artzaiak normalki erabiltzen zituzten jazkiak eta tresnak zerrendatu dizkirate:

- «artzai mantea»
- «galtzazorroa» edo «zorroa»
- «kardeak» (ardi-ilea kardatzeko)
- «txabilea» edo «mahatilea»
- «brusa»
- «ehunezko alkandora»
- «narruzko abarkak»
- «artilezko galtzerdiak»
- «abarkak lotzeko, artilearekin egindako lo-karriak»
- «galtzerdiak egiteko orratzak»

Jazki eta tresna hauek hobeki aztertzeko, begiratu hurrengo horrian agertzen den argazkia.



Argazki honetan Angel Aranzadi «artzai-jazki» nabarmenarengatik saria jasotzen ari da. Ohartu daramatzen tresnataz («txabilea», «kardak», «orratzak» eta zintzilik daraman «zorroa») eta jantzitaz («ehunezko alkandora», «brusa», «narruzko abarkak», «artilezko galtzerdiak»).

49. Artzantzatik jasotako ekoizpenak

Ardiak normalki, esnea, gaztak, arkumeen ugalketarako eta haragitarako erabiliak izan dira. Esnea, gaztak egiteko erabiliko zuten. Gazta hauek, gertuan ospatzen ziren ferietara eramaten zituzten, bertan saltzeko. Baina azken garaietan, gaztak erosi nahi zituenak, artzaiaren etxebizitzara joaten zen eta jeneroa ikusi ondoren bere itxuran zalegarrienak erosiko zituen. Arkumeak, alderantziz, Montero delako hiltegiak erosten zituen, artzaiarengana joan ondoren. Hau gertatu aurretik, artzaiak banatuta zeuzkan, artaldea handitzeko behar zituen arkumeak.

Ardi zaharra hiltzen zutenean, normalki, etxe-ko beharrak hornitzeko izaten zen. Hilketak burutzeko, garai onena negu inguruan izango zen.

Gaztak egiterakoan honako prozesu hau jarraitzen zuten: esnea bilduta terreina batetara isurtzen da, iragaztontzi batetik pasatu ondoren. Esnea, epela dagoen bitartean, dendan erositako gatzagia botako dio artzaiak (lehen arkumearen gatzagia edo legarra botako zuten). Honela esnea mamitu egingo zaigu. Bitartean, ura, sutan berotzen dauka. Esnea mamitu ondoren eskuarekin deseginduko du (eginkizun hori zurezko malatsarekin egin zitekeen —begiratu 12. diapositiba—) eta jarraipenean ura asepe botako du terreina honetan. Une honetan, nabaritutako dugu nola mamia ontziaren azpikaldera jaisten den eta «gazura» ontziaren azalean gelditzen dela. Hondoan gelditu den mami hori, eskuarekin bildu ondoren, aitzoarekin zatiak egiten dira. Jarraipenean, zati hoiak «zumitzean» ongi hestutu behar izaten dira, gazura behar bezala kendu nahi izanez gero. Gazura guztia kendu ondoren, gelditzen den masa, ehun txuri batzutan biltzen da eta berriro zumitzetan sartu ondoren, gaztak zapalgailuan jartzen dira. Zapalgailuan jartzerakoan, pisua duten harriak kokatzen zaizkie. Leku honetan, 12 ordu egon ondoren, gaztak zumitzetatik ateratzen dira eta uraz beteta dagoen terrenan sartuko dira (ura, gatzak dexterekin doa). Gazurea, etxean hazten dauden txerriei ematen zaie.

Artzantzatik lortzen diren beste ekoizpen batzuk, ardi-ilea eta narrua ditugu.

50. Ekoizpen hauen garraiobidea

Izazpiko larretan, ardiak eraitsi ondoren, esnea astoarekin edo behorarekin jeisten zen beheko herrietara. Gaur egun, baserriko ekoizpenak inguruko ferietara eramaterakoan, garraio hoiak automobilarekin egiten dira.

51. Esnea nola neurtzen duten

Egun, «litro-ontziarekin» egiten dute neurketa.

52. Erdien ile-mozketa noiz egiten den

Udaberri bukaeran eta uda hasieraren bitartean. Normalean, San Juan egunaren inguruan izaten zen.

Ile-mozketa egiterakoan, guraize bereziak erabiltzen zituzten, «artaziak» deiturikoak.


53. Piztien ehizea

Egun, Ezkioko udalbarrutian agertzen diren piztia ezagunak hauek dira: azeria, satorra, «erbindurea» (erbinudea), e. a.

Otsoa aspaldidanik desagertua dago inguru hauetatik. Azkonarra ere ez da ikusten eremu hauetan.

Gaur egun, azeria udalbarruti honetan maiz agertzen denez, urtero ehizaldiak antolatzen dira azerien kopurua ugaritu ez dadin. Hauen harrapaketa ehizatxakurren eta eskupetaren bidez egiten da. Udaletxeak azeri bakoitzarengatik dirutza bat eskaintzen zuen. Pizti hauen hilketarekin, herriko artzaiak irabazian ateratzen zirenez, hauek ere dirutza eskaintzen zuten harrapatutako azeriengatik.

Joxe M.^o Zendoiak aipatu zidanez, berak, azeria harrapatu ondoren (normalki bizirik zegoen) makila batetan zintzilik jartzen zuen eta bizkarrean jartzen zuelarik, baserri-baserri ibiltzen zen harrapatutako azeriengatik ematen ziotena jasoz. Azeria harrapatzeko 2 era zeuden:



- zepoaren bidez, eta
- une horretarako prestatzen zuten kaxa baten bidez.

Adierazi didatenez kaxaren planoak ondorengo hauek izan zitezkeen.

Planoan adierazitako kaxa honek, «lista» (lokarria) baten bidez igotzen den atea dauka. Atea irekita zegoenean, piztia barruan sartu zedin, «lista» hori atzekaldeko barila artean kokaturik zegoen egur pusketa bati lotuta. Piztia engainatzeko edozein jangai ere jarri ziteken. Piztia kaxan sartzerakoan, urdurik jarriko zen eta ihesi nahian egur zatia mogituko zuen edo haria etengo zuen, kaxaren atea une berean jeisten zelarik.

54. Artzaiak alokatzen dituen zelaia

Negu garaian, herriko artzaiak (e. b. Angel Aranzadik) herriko zenbait baserrien zelaia alokatzen zituen, bere artaldearentzat.

55. Artalde bideak

Ez da egon horrelako artalde-bide nagusirik. Halere, aipatu dizkigute artzai batzuk erabiltzen zituzten bideak bere artaldeak larrez aldatzerakoan.

- Ezkioetik - Zumarragara - Legazpira - Udanako puertora - Urbia.
- Aitzgorritik - Zegamara - Zerain - Mutiloa - Lierni - Ormaiztegi - Ezkio.
- Araia - San Adrián - Zegama - Zerain - Mutiloa - Lierni - Ormaiztegi - Ezkio.

Zegamatik Ezkiora, artaldearekin abiatu ondoren, iristeko 4 ordu bear ziren.

Hurrengo horrian, artalde-bide hauek plano batetan adierazita daude.

ERANSKINAK


56. Ardien oinentzako bainuak

Ezkion, ardien oinentzako ez dute ezagutu horrelako sendagaiarik. Atera ditudan azalpenak, honako idazlanetatik izan dira. 1964. urteko «Gufa agrícola Philips» liburuan, 192. horri aldean, ardi

osasuntsu guztien oinak desinfektatzeko erabili liteken sendabidea adierazita agertzen da. Egileek diotenez sendabidea honako prozesuan dago: 2 hobirekin osatua dago eta bakoitza 20 zentimetroko sakuntasunarekin eta 4 metroko luzerarekin eraiki behar dira.

Lehenengo hobira iritziz baina lehen, ardiei salta arazteko maila bat agertzen da, apatxen artean daramaten zikina (buztina, símaurra e. a.) bota dezaten. Lehenengo hobian «garbitasuneko soluzioa» prestatuta dago eta bigarrenean «soluzio antiseptikoa» agertzen da (e. b. kobrezko sulfatoa: neurria 1000'tik-5'ean litzateke). Sendabide honen aurrean hesiak jarrita, artalde guztien pasabidea lortzen dugu. Orain arte aipaturiko sendabidearen pasagunea, oso hestua izan behar du. 40'tik-50 zm. arteko zabaleria nahikoa da. Hobiak porlanarekin burutu litezke; edo bestela alkitranek edo galipotaren bitartez erantsitako oholekin. Ardiak sendabideko pasagunearen zehar, astean 2 edo 3 aldiz behintzat pasa behar dute (behinik behin hezetasuneko garaietan).

Artegiak bi ate edo irtera izanez gero, egokía litzateke aipaturiko sendabidea hoietako bataren aurrean kokatzea. Jarraipenean aipaturiko sendabidearen planoak doa.



57. Izazpiko tontorrean ospatzen den meza

Urtero, iraila inguruan, Izazpiko tontorrean meza bat ospatzen da hil diren inguruko abeltzainengatik eta urtean zehar hil diren herriko semeengatik. Ohitura honi hasiera ematen, Ezkioko Angel Aranzadi izan genuen eta bera hil ondoren, meza honek bere ohiturarekin jarraitu dezan, urteroko konponketak Arantxa Aranzadik eta Bittori Idiakez-ek egiten dituzte. (Begiratu 15. diapositiba.)

